


Galtzaund

ESKUALDEA: Usabalgo 3. zabalgunearen eta Berazubiren berritze lanen aurrerapena » Pello Odriozolaren aldeko martxaren kronika **TOLOSA 1936-1945:** Aitorpenik gabeko oinazea
KULTURA: Helena Baraibar Gipuzkoako Euskaraz Biziko koordinatzaileari elkarriketa



KIROL SALTSA: Xabi Fernandez Pekingo Joko Olinpikoei begira

Bilobak, oroimen historikoa berreskuratzen



ERREPORTAIA: Arritzagako mendialdeko meagunea



berogas

langile elkarte, s.a.l.

Berokuntza, gasa, aire girotua, iturgintza.
Instalazio industrialak eta etxeokak, eguzki-energia.
Sukaldeko eta bainuko altzariak, etxetresna elektrikoak.
Aluminiozko eta Poliuretanozko leihoak .

Denda: Pº San Francisco, 10 – 20400 Tolosa
Tel.: 943 653 307
Tel. / Fax: 943 650 520
E-mail: muebles@berogas.com

Bulegoak: Polg. Usabal, pab. 11A – 20400 Tolosa
Tels.: 943 672 620 / 943 675 977
Fax: 943 675 421
E-mail: berogas@berogas.com

www.berogas.com



MULTIOPTICAS

1.ª ZERBITZU OPTIKOETAN

www.multiopticas.gipuzkoa.com







1.ª Zerbitzuko 1.ª et. P.º SAN FRANCISCO ALDAMA	2.ª Zerbitzuko 1.ª et. P.º SAN FRANCISCO ALDAMA	3.ª Zerbitzuko 1.ª et. P.º SAN FRANCISCO ALDAMA	4.ª Zerbitzuko 1.ª et. P.º SAN FRANCISCO ALDAMA	5.ª Zerbitzuko 1.ª et. P.º SAN FRANCISCO ALDAMA	6.ª Zerbitzuko 1.ª et. P.º SAN FRANCISCO ALDAMA	7.ª Zerbitzuko 1.ª et. P.º SAN FRANCISCO ALDAMA	8.ª Zerbitzuko 1.ª et. P.º SAN FRANCISCO ALDAMA
---	---	---	---	---	---	---	---



aldama_tapia
aholkularitza

Foruen Etorbidea_7
20400_TOLOSA Gipuzkoa

Tel_943 650 375

Faxa_943 655 206

gtolesa@aldamatapia.com

www.aldamatapia.com



Argitaratzailea: Galtzaundi Euskara Taldea.

Helbidea: Nafarroa etorbidea,
6-behea,
20400 Tolosa (Gipuzkoa)

Telefonoa: 943 655 004

Faxa: 943 654 983

e-posta: galtzaundi@galtzaundi.com

Webgunea: www.galtzaundi.com

Koordinazioa: Leire Zubeldia.

Erredakzio taldea: Igotz Alkorta, Felix Aiestaran,
Amaia Goikoetxea Azpeitia.

Kolaboratzaileak: Maialen Zubeldia, Amaia Sagasti, Alexander Padilla, Joseba Antxustegietxarte, Jon Ander Ubeda, Txomin Gamendia, Garbiñe Biurrun, J. Agustin Arrieta, Begoña Aristi, Antton Izagirre, Ibon Artola, Inigo Jimenez, Tolosa Bit, Unai Igartua, Virginia Etxarri, Jone Otxoa-Aizpurua, Artubi elkarte, Amaia Goikoetxea Orbegozo.

Publizitatea: Angela Alamo.

Banatazaileak: Oihana Sanchez,
Juankar Arregi.

Idazkaria: Edurne Mendia.

Maketazioa: Zigor Agirrezabala

Diseinua: Jon Ander Ubeda eta
Maddi Trutxuelo.

Azala: Galtzaundi

Inprimategia: Antza.

Tirada: 5.000 ale.

Lege gordailua: SS-906/91.

Frankeo Itundua: 37/94.

GALTZAUNDI aldizkaria doan banatzen da Tolosaldeko 23 herri hauekiko denda eta tabernetan: Abaltzisketa, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketza, Anoeta, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Gaztelu, Herrialde, Ibarra, Ikaztegietza, Irura, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orea, Tolosa.

Galtzaundik ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



zerbitzua eta lana
euskaraz



KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundutakoa

Aldizkari honek Gipuzkoako
Foru Aldundaren laguntza
jaso du

Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailaren, Gipuzkoako Foru Aldundiako Kultura eta Euskara Sailaren, Kutxa Fundazioaren, Tolosako Udaleraren eta Tolosaldeko hainbat Udalen laguntza jaso du.

IRITZIAREN LEIHOA

- Jon Azpiroz: Udaz gozatu eta ondo pasa jaietan!
- Garbiñe Biurrun: Erabakitzeko eskubidea.

4-5. orrialdeak

NORMALIZAZIO ATALA

- Anoetako Udalak neurri berriak euskararen alde.



6. orrialdea

ESKUALDEKO ALBISTEAK

- Tolosa: kirolaren hiria izateko lanean.
- Pello Odriozolaren aldeko martxa Tolosatik Lugora.

10-12 orrialdeak

Galtzaundi 284

2008ko uztailaren 18a

Iritziaren leihoa: Jon Azpiroz eta Garbiñe Biurrun	4-5
Eskualdeko albisteak: Tolosa: kirolaren hiria izateko lanean..	10-11
Pello Odriozolaren aldeko martxa	12
Tolosa 1936-1945: Aitorrenik gabeko oinazea	13-15
Agurtzane Bernaras: Gerrako desagertuaren bilobari elkarriketa	16-19
Kultura: Helena Baraibar, Euskaraz Biziko Gipuzkoako koordinatzailea	20-21



ERREPORTAIA

Udan eskualdea ezagutzeko proposamena (II)

7-9. orrialdeak



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

diruz lagundutako argitalpena

KIROL SAL TSA

PEKIN 2008

“Gure helburua domina ekartzea da. Urrezkoa bada hobeto, baina zilarrezkoa edo brontzezkoa ekarrita ere gustura geratuko gara. Kontutan izan behar da Joko Olinpikoak lau urtez behin direla. Munduko txapelketa oso garrantzitsua da, baina urtero jokaten da. Olinpiadetara munduko onenak joaten dira. Dena ematen dute. Horregatik, domina eskuratzea gauza handia da.”

• XABI FERNANDEZ
MARINELA

22-23 orrialdeak



UDAZ GOZATU ETA ONDO PASA JAIETAN!

JON AZPIROZ

Bedaioko Artubi Elkarteko kidea

Urte erdia igaro da, San Juanak izaten dira udarako sarrera ematen dutenak. Herri guztietan izaten dira jaiak eta bada garaia deskantsu txiki bat hartzeko ezta?

Urte erdia igaro da. Atzera begiratzuz badirudi ez dugula gauza handirik egin, baina esaerak dioten bezala usteak erdi ustel. Bedaion hortxe baikaude, alde batetik bestera mugitzen eta gauzak prestatzen. Martxoan, apirilari, maiatzan eta ekainean egon da zer eginik Bedaion, ekin-tza desberdinetan parte hartzeko aukera. Baina aurretik egindako lana isila ekainean agertu da sendo. Ekaina hilabete luzea izan da eta emaitza ikusirik, zer esanik ez: Bedaion badago aurrera egiteko jendea.

Ekainak 8an burutu zen Mendi martxa eta bizikleta martxa. Guztira berrehun bat kirolarik hartu zuten parte,

karreteran zehar, oraindik aparkalekurik ez baitago, 50 kotxetik gora, eta gehientsuenak denak ez esatearren gustura bueltatu ziren etxera, harro sentitzeko laguntza eskeini zuten berriro ere herritarrek.

Ondoren On Joxe Agirrerri omenaldi xumea egiteko garaia ere iritsi zen. 50 urte dira apaiz egin zenetik eta azkeneko 15 urte baino gehiago Bedaion pasa ditu elizkizunak ematen. Bertako koroa eta zenbait musikari bertsoak eskeini zizkioten esker onak emanik. Ondorengo asteburuan jubilatuen eguna burutu genuen, iraganean egindako lanak gaur eskertuz.

Ikusi bada Bedaion bada-goela bizia eta bizitzeko asmoa.

Irailean berriz ere beste ekintza berri bat egingo dugu. Inguruan askotan ikusi ez dena, futbola, pelota eta txirrindularitza bezalako kirolak

nagusi ditugun hauetan badira beste kirol batzuk ezezagunak suertatzen direnak. Bedaion naturaz gozatzeko eta ezagutzeko asmoarekin ere zaldia erabiliko dugu oraingoan. Oinez eta bizikletaz ez ezik zaldiz ere Bedaio ezagutzeko aukera badagoelako.

Zaldi lasterketa antolatzen ari gara, baina ez orain arte ikusitakoak bezala, Ondarreta, Zizurki, Getaria, Abaltzisketan etab lasterketak egiten dira, baina normalean distantzia eta denbora gutxikoak izaten dira, gehienez 5 minutukoak. Bedaion erresistentzi lasterketa bat proposatzen ari gara. Heziketazko lasterketa gazte eta helduek har dezketen parte eta nola ez gizon zein emakumezkoak, epaileak, al-baitariak ere izango dira.

Ez da erreza izango hone-lako egun bat antolatzea baina horretan gabiltz berriro ere herriaren mugimendua erakusten eta suer-

“Bedaion naturaz gozatzeko eta ezagutzeko asmoarekin ere zaldia erabiliko dugu oraingoan. Oinez eta bizikletaz ez ezik zaldiz ere Bedaio ezagutzeko aukera badagoelako”

tatzen zaizkigun zailtasunei aurre egiten.

Urte erdia pasa da eta beste erdia etortzeko dago oraindik. Herriko festak nagusi, ondorengo hilabetetan egongo da zer egin Bedaion, sorpresak izango ditugu, lanean jarraitzeko gogo eta grina handiagoa suertatuko dituenak.

Han izango gara denok kirolaz, festaz eta janaz gozatzeko.

Udaraz gozatu, indarrak hartu eta jaietan ondo pasa. ■



Run down Entertainment disketxeak eskainita Manent eta Bisai taldeen diska bana irabazi dute ondorengo bazkideak:

run
down
entertainment

Ametz Taberna (Tolosa) • Iñaki Olano (Anoeta) • Nekane Mujika (Anoeta)



ERABAKITZEKO ESKUBIDEA

GARBIÑE BIURRUN

Epailea

Azken urte hauetan gure panorama politikoa nahasi xamar dabil erabakitzeke eskubidea dela eta.

Zer ote da, ordea, eskubide hau? Lortu behar dugun eskubide berria? Gurea dugun eskubidea, baina aitortzen ez zaiguna? Nola gauzatzen da eskubide hau? Zer esparrutan?

2007ko irailaz geroztik, Lehendakariak aurkezturiko egitasmoaren ibilbidea ikusten ari gara. Egitasmo horrek bi ardatz ditu: printzipio etikoa eta printzipio demokratikoa, eta bigarren hau da, hain zuzen ere, Euskadiko Erkidego Autonomoko herriaren erabakitzeke eskubidea oinarritzat duena.

Eusko Jaurlaritzak bide orriari ekiteko baldintza objektibo hauek landu ditu: ETAREN indarkeriaren desagerpen beharra, normalizazio politikoaren eta herritarren parte-hartzearen beharra, baita gehiengoari zor zaion begirunea ere, beti ere gutxiengoa errespetatuz.

Horregatik, Ibarretxeren delako bide orria, lehendakariak aurkeztua izan arren, Jaurlaritza osatzen

duen hiru alderdiek sostengatua da, eta baita Aラルrek ere. Beraz, egitasmo hau guztiz transbertsala edo zeharkakoa da. Badakigu ez dela batzuek nahiko luketen bezain transbertsala, baina indar nazionalistak eta ez nazionalistak daude: Ezker Batuak nazionalismoan oinarritu beharrean, demokrazian eta federalismoan oinarritzen du bide orriari eman dion balesa.

ETAren desagerpenari buruz ez da horrelako lis-karrik gertatu. Beharbada horretaz akordioa zabalagoa da bigarren printzipioaz eman dena baino. Beraz, printzipio demokratikoak sortzen ditu desadostasunik sakonenak. Batzuek argudiatzen dute herriak bere gustuko alderdiari botoa emanaz hitz egiten dutela eta, aurrerantzean, hauteskundeetan hautatzen diren ordezkarien bitartez. Baina jarraian, herriak esaten duena interpretatu behar dela esaten zaigu. Zergatik ez zaio, bada, arrazoi demokratikoak erabiliz, herriari nahi duena zuzenean galdetzen? Zergatik herriari galdetzea batzuren esanetan zatitzailea bihurtzen

da? Zerk zatitzen gaitu, benetan?

Bestalde, ideia batzuk adierazi dira garbiki proposamen honi esker: a) bide politikoak jorratzea behin eta berriro gure egoera argitzeko eta normalizatzeko; b) akordioak lortzen saiatu behar dela, bai hemen, baita Estatuarekin ere, hau da: ituntzeko edo adosteko borondatea; c) demokrazian sakontzea posible dela eta gizartearen hitza dela nagusi: nola gobernatu nahi dugun gure burua esaterakoan, hau da, demokrazia partehartzaile batera joanez (ez bakarrik gai honetan, baizik eta beste askotan ere bai); d) ETAK ez gaituela zertan babestu behar (ez orain eta ez inoiz); ETAK ez duela ezer lortu eta ez duela ezer lortuko herri honentzat; herriak berak, bere borondate librea demokratikoki azalduz, nahi duena lortuko duela.

Puntu hauek dira, niretzat, proposamen hori horren interesgarria egiten dutenak.

Zoritxarrez, berriro ere – 2005ean delako Ibarretxe Planarekin gertatu zen bezala – Eusko Legebiltzarrak onartutako erabakiak – He-

“Gure buruari galdetu beharko geniokeena zera da: onartutako Legea zertan ez den demokratikoa, zertan kaltetzen duen gure elkarbizitza, zertan doan ETAren bidetik edo zertan baliatzen den ETAREN existentziaz.”

rri-galdeketerari buruzko Legea – kritika zorrotzak pairatu behar izan ditu: zatitzailea eta ilegala dela. Azkenean Konstituzio Auzitegiak erabakiko du Konstituzioarekin bat datorren ala ez. Baina, nork erabakiko du zer den zatitzailea eta zergatik? Nola erabakiko dugu nahi dugun etorkizuna?

Halere, ezin da egoera dramatizatu eta mamu guztiak astindu. Azkenean, ariketa demokratiko bat besterik ez da. Gure buruari galdetu beharko geniokeena zera da: onartutako Legea zertan ez den demokratikoa, zertan kaltetzen duen gure elkarbizitza, zertan doan ETAren bidetik edo zertan baliatzen den ETAREN existentziaz. ■

Martin Eceizabarrena

Instalazio erreforma
Konponketak

Igaralde, 11 - Tolosa
Tel.: 943 672 445
Mobila: 608 774 822

SANTAMARIA

Ortopedia

- Garabi eta aulki elektrikoaren erakusketa.
- Kirola egiteko ortopedia sail berria.
- Osakidetzarekin hitzarmena.
- Ohe artikulatuak distantzirako mandoarekin.

Laskurain 11 • Tel.: 943 654 610 • TOLOSA

SHANTI

kirolak

Rondilla, 11 bis • Tel.: 943 674 074 • TOLOSA

Anoetako Udalak neurri berriak hartuko ditu euskararen alde

BANDOAK, KALEKO OHARRAK, UDAL ARGITALPENAK... EUSKARAZ IZANGO DIRA ANOETAN

Erredakzio Batzordea

Neurri horiek bi faktoreren ondorio dira, nagusiki: Anoetako herritarrengan euskarak gero eta presentzia handiagoa izatea (eskolan, kalean, lan munduan, merkataritzan...) eta udalak azken hamarkadan euskararen alde hartutako erabakiek jorratutako bidea.

Herritarrei dagokienez, euskararen erabilera eta eza gutza handituz doaz Anoetan, eta horren adierazgarri dira Euskararen Kale Erabileraren Neurketan euskarak gora egitea, seme-alaba guztiarentzat eskola eredu euskalduna aukeratzea, kultur ekinzetan euskarari lehentasuna ematea, herriko dendetan eta enpresetan euskarak gero eta toki handiagoa izatea, erakunde publikoetan euskararen aldeko neurriak sustatzea...

Anoetako Udalak euskararen alde egindako ibilbideari dagokionez, aspaldi hasi zen euskararekiko konpromisoak hartzen: 1999an Udallerri Euskaldunen Mankomunitatean sartu zen, 2001ean Euskararen Erabilerara Plana onartu zen, urte asko dira diru laguntzak

Anoetako Udalak euskararen aldeko neurri berriak hartu ditu udal zereginetarako. Horren ondorioz, herritarrei begira egin beharreko zereginetan aldaketa batzuk izango dira; besteak beste, bandoak, kaleko oharrak, udal argitalpenak eta etxeetarako mezuak euskaraz izango dira. Neurri berrien helburuak elebitasunak sortzen duen lan karga arintzea eta denon hizkuntz eskubideak errespetatzea dira.

te esparru batzuetan duen pareko garrantzia izatea.

Neurri berrien ondorioz, herritar batek euskarazko idatzia behar bezala ulertzen ez badu, Anoetako Udalak behar adinako



bideratzen dituela euskaratik ari diren herritarren zatitza...

Horregatik guztiatik, euskararen alde beste aurreapauso bat eman nahian, udal zereginetan euskarari

presentzia handiagoa eman nahi dio Anoetako Udalak. Azken batean, udalaren eta anoetarren izaera euskaldunarekin koherenteagoak izatea nahi da; hau da, euskarak udal zereginetan ere bes-

laguntza emango dio: udal etxean, langileek agiriaren gaineko argibideak emango dizkiote, eta, hori nahikoa ez bada, herritarrek beti izango du aukera itzulpena eskatzeko. ■

ALDATZ
Kristaldegia

Mota guztiako beirak
Bainu eta dekoraziorako
ispiluek
Beirate artistikoak
Dubxa-itxiturak

Tel./Faxa: 943 674 845
kristaldatz@euskalnet.net
Pablo Gorosabel, 33 • TOLOSA

BENTA
ALDEA

JATETXEA

Tel.: 943 654 079
ANOETA-TOLOSA BIDEAN

ELUSTONDO
ELEKTRIZITATEA

Argi lanak
Iluminazioa
Antenak

Iurre, 4 (Mustad) 943 672 300
Amaroz, 21. 943 675 513
20400 TOLOSA



Arritzagako mendialdeko meagunea

ARRITZAGAKO MINETAKO ARGIBIDE GEO HISTORIKOAK AZALTZEN ZAIZKIZU HURRENGO ERREPORTAIAN

Patxi Arzamendi

MEATEGIETAKO HISTORIA

XVIII. mendean kokatu dezakeku Arritzagako meategien hasiera. Zehazki, 1735. urtean.

Garai hartan Aralar aldean pertsonai bitxi bat azaldu zen: Paulo de Petriati, Maneteko Kondea.

Konde hau erabat txirotuta zegoen eta diru eske ibili zen Nafarroa aldean. Halako batean, Nafarroako Alliko abadete-ean agertu zen, eta abadeak, Juan Antonio de Argañaik, mineral puska distiratsu batzuk erakutsi zizkion. Petria-

Ondoko lerroetan Amezketako Arritzagako minetako zenbait argibide geohistoriko aurkituko dituzu, hau da, meategietako historia eta bertako geografia, ibilbideak, etab. Arritzagako meagunea eta Buruntzunzingo meategiak Aralarreko mendilerroko Arritzagako bailaran kokatuta zeuden, ia 1000 metrotako altueran. Gehienbat kobrea ustiatu zen, baita beruna eta, ustez, urrezko piritak ere. XVIII. mendetik martxan egon ziren eta, hainbat gorabehera pasata, XX. mendearen erdialdera bitartean jarraitu zuten.

tik, harriturik garrantzi handiko mineralak zirela esan zion abadeari. Horrela, Petriati kondearen bultzadaz, 1734an Amezketan meatzeak ustiatzeko elkartea eratu zen.

ELKARTEAREN GORABEHERAK

Sozietate hau, Petriati, Argaña eta beste zenbait pertsonaz osatuta zegoen eta 10 bat lagun hasi ziren lanean. Mea atera baino lehenago hainbat

lan burutu behar izan zituzten: pagoak moztu eta behar ziren eraikin (labeak, lantegia, etab.) altxa. Urte bat geroago, 1735an, Amezketako Udalak minak kontrolatzeko asmoz amezketar bat jarri zuen elkartean: Markos Antonio de Imaz. Mea menditik ateratzeko lanak hasi ziren baina berehala azaldu ziren galera ekonomikoak. Hala ere, 1766an Cristobal Fat, alemaniar meatzari aditua etorri bezain pronto, gauzak erabat aldatzen hasi ziren. Fat alemaniarrek (Baigorriko meategi batzuetan ibilitakoa) lanen ardurak bere gain hartu eta

(hurrengo orrian jarraitzen du)

(aurreko orritik dator)

produkzioa nabarmen hazi zen. Bestalde, administrazioa,



Buruntzunin egin zen 1950ean meatzeak ustiatzeko azken saiakera.



Arritzagako mina zuloa.



Oraindik ere meatzeetan mea garraiatzeko erabili zituzten hainbat tramankulu ikus daitezke inguruetan.

Juan Bautista de Urreta alegitar trebearen eskuetan geratu zen. Urteik urtera produkzioak gorako joera hartu zuen; 1772tik 1792ra lortu zen etekinik handiena. Urreta eta Fatekin Arritzagak “urrezko garaia” bizi zuen. Esan beharra dago, meatzaren hazkundea seinale langileen kopuruan ere ikus zitekeela argi eta garbi, zeren eta, 10/20ren bat meatzari izatetik, 300 bat izatera pasatu ziren 40-60 urteetan. Langile hauek aritu ziren bai meategietan bai eraiki ziren bi burdinoletan ere. Langilegoaren hazkundea zela eta herrixka bat eraiki zen mendialdean, Arritzagako herrixka, hain zuzen ere. Herrixka hau taberna, eliza, frontoia eta etxolez (barrakoiak) osatua zegoen. Bestalde, Urretak Amezketa Urretaenea etxea eraiki zuen, orain dela gutxira arte, mendizaleen artean, Bixente aterpea bezala ezaguna izan dena.

3 kilometroko minazulo bat zabaldu zen Arritzaga inguruan. Ateratako mea mando eta gurdietan jaisten zen Amezketa Arritzagako arro estu eta malkartsuan behera.

Urretak administrazio-lana utzi zuenean eta Fatek lantegia uztea erabaki zuenean

(Venezuelara joan zen bizimodu berri baten bila) gain behera etorri zen. 1794 urte inguruan gertatu zen hori.

XIX. mendearen hasierarekin, 1800an langile kopurua erdira pasatu zen eta urte gutxiren buruan meatzeak itxi egin ziren. Garai hauetan, meatzetan lan egin zuen meatzari bat Fernando Bengoetxea (1764-1823) izan zen; “Fernando Amezketa” bezala ezagunagoa, bertsolari ospetsua eta mito bilakatu dena.

BESTELAKO ALEMANIARRAK MEAREN BILA

Berriro, XX. mendean martxan jarri ziren. Hitlerrek Frankori laguntza eskatu zion mineralak behar zituelako: burdina, pirita, kobrea..., 1936etik 1945era bitartean, Sociedad Hispano-Marroqui sortu eta lanean aritu ziren. Baina ez zuten nahi adina mineralik atera eta bertan behera utzi behar izan zuten.

1950. HAMARKADAN AZKENENGO SAIKERA

Buruntzunin aldean, Arritzagatik behera, berriz ekin zitzaion ustiapenari, 12 orduko lanaldietan. Amezketa garrarioz arduratzen ziren. Ordurako, aireko tranbia edo kablea eraikita zegoen Buruntzuzingo kargalekutik Amezketa herriraino. Azkenik, 1966. urtean itxi zituzten meategiak behin betirako.

INFORMAZIO GEHIAGO JAKIN NAHI IZANEZ GERO:

-Joxe Elozegi Irazusta: “Las minas de cobre de Aralar”

-Joxe Mari Otermin: “Amezketa, bide luze bezain malakarrak”

-Elixabete Garmendia: “Arritzaga: artzain eta meatzarien artoa” ■

ARRITZAGA ETA BURUNTZUNZINGO MEAGUNETARA AILEGATZEKO IBILBIDEEN DESKRIBAPENA

GOIMENDIETAKO ETA NATUR
ETA KULTUR INTERESA DUTEN
IBILBIDEAK

Arritzagara doazen bide guztiak goimendietako ibilbide aldapatsuak dira zeren eta ia 800-1000 metro inguruan kokatzen dira meategietako aztarna eta hondakinak eta Amezketatik (250-300 m) igo beharra dago (San Martin basiliza ondoko aparkalekua). Aralarreko Natur Parke barne- barnera garamatzaten bideak dira proposatzen diren guztiak. Denboraren poderioz meatzetako eraikin aztarnak ez dira ezabatu eta zikin hobeki berezi daitezke.

1. Ibilbidea: Arritzaga erreka ondoko bidea (Minetako bidea)
2. Ibilbidea: Zabalegiko magaletatik doan bidea (Andregoenako bidea)
3. Ibilbidea: Larraonako magaletatik doan bidea (Ariñateko bidea)

1. IBILBIDEA:
MINETAKO BIDEA

Arritzaga erreka ondoko bidea meatzariak erabiltzen zuten bidea da, hau da, mea mandotan jaisteko erabiltzen zuten bidezidor bihurria. Astamutileta edo Larramendi baserrietatik Beratzeaga haizpitartera iritsiko gara. Beratzeaga, bideak eta Arritzagako erreka bat egiten duten tokia da. Errekan gora jarraituta Anduitzeko bordara ailegatzzen da; Makien borda ere deitzen diote. Gerra Zibilaren ostean, guardia zibilek bertan babestuta zegoen maki bat topatu eta erahil egin zuten. Bidean gora erreka urjauzi eta putzu ederretaz gozatze-ko aukera izango dugu. Berehala, Buruntzunzin meategi azpiko ingurura ailegatu gara. Hemen, inguru nagusia zelaigune eta meategiek utzitako hondakin eta aztarnak baterik dago.

2. IBILBIDEA: ANDREGOENAKO BIDEA

Andregoenako bidea, bai Larra mendibaserrietik bai Altuna Goeina baserrietik Zabalegi goimuino azpiko Andregoenako bordara iristen den bidea da. Andregoenako 700 metroko altueran kokatuta dago eta Tolosako Bedaio auzoko bistak ditu ekialdean. Artzantza inguruetan gabiltzala konturatu gara berehala, zeren eta borda pila bat ikus daitezke Bedaio aldera begira. Beratzeaga harkaitz erraldoiaren gainekaldean kokaturik gaude, putreak ikusteko toki aparta. Hortik aurrera, bide txur harritsu zehar-zehar doa magalean erantsita, Andregoenatik Buruntzunzin azpiko aldera edo goiko aldera ailegatzeko aukera ematen du.

3. IBILBIDEA:
ARIÑATEKO BIDEA

Astimutileta baserrietik eskumara errepede bat jarraituta berehala mendiko pista bat bihurtuta zigizagan hasiko da ibilbidea (betiezkerreko norabidea, gorantza eta bide zabal eta harritsuak). Beratzeagan informazio-panela eta egurrezko zubia ikusiko dugu. Bidean gora, orain arte bezala, baso oparoa, harkaitzak eta borda aztarnak topatu ditugu Ama-

rrelekueta inguruan. Berehala, bihurtu batean, langa batekin egingo dugu topo. Hemen mendiko kotxeek aparkatu beharra dute derrigorrez, Aralarreko Natur Parke barrenean gaude eta. Larraonatik jaisten diren erreka eta Ondarreko langara pasata, bidean gora, Ariñateko txaboleta ailegatu gara. Hau bazkaltzeko toki proposa da. Hemendik, Arritzagara zehar bide estu eta laua dago.

HIRU IBILBIDE HORIEN
LOTUNEA: ARRITZAGA ETA
BURUNTZUNZIN ARTEKO
BIDEA: MINETAKO BIDEA

Arritzaga mendiko bailaratik doan bidea, hau da, minetako bidea, lehen aipaturiko 3 ibilbideen topagunea da eta meatzari nahiz artzantzako eraikinak nonahi ikus daitezke.


ARRITZAGA: MENDIALDEKO MEA-
HERRIKAREN AZTARNAK

Arritzaga txabola (950 metro/altuera). Arritzaga txabola inguruan eraiki zen XVIII. mendeko meatzarien herrixka. Herrixka hau, etxolak, tabernak, eliza (atea edo lehoaren arku bat ikus daiteke), trinketea eta abarrez osaturik zegoen. Inguru ondo aztertuz ikus daitezke eraikin horien horma zatiak. Arritzagako txabolako jetzi-

tegi mugarri bat dago kokatuta, Anastasio Balerdi artzaiak eraikitakoa, Sarobe harria edo Enirio eta Amezketako udalerraren arteko mugarria izan daiteke. Arritzagako txabolatik behera, Arritzagako iturri ondotik pasako gara. Gero, egurrezko zubia zeharkatuta, minazulo bat topatu dugu. Esaten dute Nafarroa aldera ailegatzzen dela (Malloak zeharkatuta) eta hainbat kilometro eta galeria dituela (kontuz!). Minetako txabola bat pasata berehala Buruntzunzingo beheko meagunera iristen gara.

BURUNTZUNZIN:
MENDIALDEKO MEAGUNEA

Buruntzunzin azpi (925 m/altuera). Inguru honetan, zentrala, kargalekua, mea garbitzeko ur-biltegia eta hainbat eraikinen aztarnak nabarmendu daitezke. Leku honetatik, garai modernoan (XX. mendean) Amezketara jaisten zuten mea aireko tranbiaren bidez, buruntzunzingo gurditxoak edo bagonetak kabletik zintzilikatuz. Oraindik, ikus daitezke bagoiak nahiz kableak, eta bidean behera kable lotzeko matxoiak eta posteak ere. Buruntzunzin goian (1000 m/altuera). Minetako txabola (gaur egun, mendiko aterpe bihurtua), meatzen arrastoak, kableak, mea ikus daitezke.



TOLOSA >>> USABAL KIROLDEGIKO HIRUGARREN FASEA ETA BERAZUBIKO INSTALAZIOAK BERRITU OSTEAN, TOLOSAN

Tolosa, kirolaren hiria izateko

Hilaren bederatzian zabaldu zuten Usabalgo eguzkia hartzeko gunee berriak. Modu honetan ekin diote kiroldegiaren hirugarren fasea eraikitzeari. Usabalgo zabalpenari Berazubiko zaharberriak jarraituko dio. Era honetan, 2012rako mota guztietako kirolak egiteko instalazioak eskaini nahi ditu Tolosak.

Erredakzioa

Usabalgo solariumaren irekieraren aitzakian hurbildu da Galtzaundi Oscar Hugo Renedo Tolosako kirol zinegotziarengana. Datozen urteetan gauzatu nahi diren kirol proiektuen berri eman du.

Hasiera hasieratik, kirola eta aisia uztartzea izan da Usabal Kiroldegiaren ideia nagusia. Ideia hori aintzakotzat hartu dute solarium berria eraikitze-

rako garaian. 3.800 m² zelaian, eguzkia hartzeaz gain, interneten nabigatu daiteke wifi sareari esker, edota liburu bat irakurri zelaian egokitu duten liburutegi zerbitzua erabiliz. Haurrentzako ur-jaurtigailuz hornitutako gunea ere badu. Guzti honi udan aterako diote zukuia, baina urteko gaintontzeko urtaroretan ere gunee berria erabilgarria izan dadin, futbol 7-an jokatzeko zelaia egin dute. Bi sarbide ditu. Kaleretik zuzenean sartu daiteke, eta baita kiroldegiko igerilekuterik ere. Belar artifizialez eginitako zoru iragazgaitzari esker, mantenu lanak errazagoak izango dira.

USABALGO HIRUGARREN FASEA ABIAN

Zabaldu berri den solariuma da kiroldegiko hirugarren zabalgunea gauzatzeko bidean lehenengo urratsa. “Lehenengo solariuma txiki geratu zen eta presazkoa zen hau lehenbaile-

hen irekitzea”, azaldu du Oscar Renedok. Kiroldegiko azken fase hau erabat definituta ez dagoen arren, bertan eraikitako kirol instalazioak nahiko zehaztuta daude jada. Esate baterako, solariuma eta ibaiaren artean patinaje pista bat egingo dela ziurtatzen du Renedok. “Patinaje pista bat egiteko ideia ez da oraingoa, aspaldiko asmoa da eta azkenean orain gauzatu dugu”. Pista zirkularra izango da eta honen erdian skate park-a eraikiko dute. Solariumaren eskuinaldean, padel pistak egingo dira. “Ez dakit zehazki zenbat izango diren, hiruzpatal zuzenik”. Hauekin batera pare bat tenis pista egokitzea aurreikusten da. Azken gunee honen eta Bentaundirako bidearen artean, BMX zirkuitu bat izango da. “Hau mendiko bizikletan ibiltzeko zirkuitu bat da, jauziak egiteko gunekin, igoerekin eta jaitsierekin”. Azken hau eta patinaje pista

gune irekiak izango dira. Hau da, kiroldegiko bazkide ez direnek ere erabili ahal izango dituzte. Padel eta tenis pistek ordea kiroldegi barrutik izango dute sarrera.

Kiroldegiaren azken zabalgunearen proiektua 2009rako zehaztu nahi dute, lanak amaitzeko epeak finkatuz. Hau baino lehen amaituko dutena, orain kiroldegian bertan eraikitzen ari diren rokodromoa da. “18 metroko altuera duen rokodromoa ari gara egiten. Horma garai honen inguruan bulder modalitateko eskalada egiteko gunee egokitu ditugu”. Oargi eta Alpino Uzturre elkarteak izan dira udalaren aholkulariak rokodromoa diseinatzeko garaian. Renedoren hitzetan, “Euskadin ez dago mota honetako ezaugarriak dituen rokodromorik”. Aurtengo abenduan edo datorren urteko urtarrilean zabalduko dute hau.

BERAZUBI, USABALEN



3.800 m²ko gunean eguzkia hartu, freskatu, liburuak irakurri eta interneten nabigatu ahal izango da.

N ERA GUZTIETAKO KIROLAK EGIN AHAL IZANGO DIRA

o lanean

OSAGARRI

Usabalgo hirugarren zabalgunearekin ez da amaitzen Tolosako kirol instalazio berrien zerrenda. Udaleko kirol sailaren asmoen barruan kokatzen da Berazubi kirolgunearen zaharberritzea. "Oso egoera kaxkarrean dago eta pena da horrelako leku bat modu horretan edukitzea", dio Renedok. Lehenik eta behin aldagelak berrituko dituzte. Ondoren frontoia eraberrituko dute. "Usabalek ez du frontoirik. Txorakeria baitzen frontoi bat eraikitzen lekua betetzea Berazubikoa alferrik galtzen utzita". Honekin batera tenis pista ere berrituko dute eta baliteke padel pistaren bat egitea. Futbol zelaia eta atletismo pista ere egokitu dituzte harmailekin batera. Azkenik, Tolosa Cfren bulegoak zaharberrituko dira eta Usabalen bezala, Berazubin ere kafetegi eta jatetxe zerbitzua eskaini nahi dute.

"Jendeak uste du Berazubi Tolosa CFren gune eskusiboa dela. Hori uste oker bat da".

Irudipen hori ezabatzeko, herritarrentzat zabalik egongo den gunea izango da Berazubi berria. "Usabalen osagarria izatea nahi dugu. Hori dela eta, Usabalgo bazkide txartelarekin sartu ahal izango da instalazio berri hauetara".

Usabalgo hirugarren za-



balgunea amaitu bezain las-ter hasi nahi dute Berazubi berritzeko lanean. Kirol Zinegotziaren hitzetan, 2012rako amaituta izan nahi dituzte lan guztiak. 2015erako, Tolosa kirol instalazioen arloan Euskadiko hiririk aurreratuena izango dela ziurtatu du Renedok. ■

AZKENEAN IRITSI DA PRESA PUZGARRIA

TAKek urteak daramatza Oria ibaian nabigatu ahal izateko gutxieneko ur maila ziurtatuko lukeen presa puzgarria eskatzen. Oscar Renedok iragarri duenez, Tolosako Udalak eta TAKek presa puzgarria jartzeko hitzarmena sinatu dute. 2009an egingo dituzte ibaiko egokitzen lanak. Eta 2010 -

2011 artean jarriko dute presa puzgarria. "Honek metro batez igoko du Oria ibaiaren ur maila Zerkausi paretik Usabalera arte". Renedok ibaia duela urte batzuk baino garbiago dagoela ohartarazi du, eta orain eraikitzen ari diren kolektoreei esker, are ibai garbiagoa

lortuko dela adierazi du. "Modu honetan arraunean ez ezik bestelako ur kirolak ere egin ahal izango dira, piraguismoa esate baterako eta baita arrantza ere". Harrigarria badirudi ere, Tolosako kirol zinegotziak Oria ibaian hondartza artifizial bat egiteko ideia aipatu du.

Oriako lanean batera, udazkenean betetzen hasiko diren Ibiur urtegiaren ur biziko gunek jartzeko ideia lantzen ari dira. "Oso proiektu zaila eta garestia da". Une hontean Sustapen Ministeritzarekin negoziaketetan ari dira dirulaguntzak lortzeko.

J. San Sebastian
MARISKO ETA ARRAINAK



Foruen etorbidea, 5 • TOLOSA
Tel.: 943 653 528 / 943 682 141

Zure publizitatea
hemen
943 655 004

ZALBIDE

Tolare Sagardotegia

Haragiak eta arrainak parrilan.
Ostirala, larunbata eta igande
eguerditan irekita, iluntzetan
egunero.

Zalbide baserria - Abaltzisketa
Tel.: 943 652 176

Zumardi

SEGURAS
VILBAO



Aholkularitza
integrala

Laskurain, 8-behea
TOLOSA
Tel.: 943 651 877

Beatriz
Dekorazioa
Donostia - Tolosa

Donostia	Donostia	Tolosa
San Martin, 16	Garibai, 8	Rondilla, 11
943 425 886	943 420 259	943 670 615
943 420 187	943 430 947	943 671 149

- Gortinak
- Edredoi nordikoak
- Mantak
(bat erosita beste bat opari)
- Ohazalak
- Alfonbrak
etab.

JANTZIAK

OSKI

cinetakeak

Nafarroa Etorbidea, 11
Tel.: 943 651 264 - TOLOSA

TOLOSA >>> HAINBAT TOLOSARREK BONXE-KO ESPETXERA BIDAIA EGIN ZUTEN PEIORI ELKARTASUNA ERAKUSTEKO

Elkartasun katea Tolosatik Lugora

Pello Odriozola Preso tolosarrak uztailaren 3an aske behar zuen. 20 urte espetxean igaro ondoren, beste hamar urtez luzatu diote espetxe zigorra. Pelloren egoera salatu eta preso tolosarrari elkartasuna adierazteko hainbat ekimen burutu dira Tolosan. Horieta-ko bat uztailaren 5ean Odriozola preso dagoen Bonxeko espetxera egindako martxa izan zen.

Leire Zubeldia



Pello Odriozolaren egoera salatu eta elkartasuna adierazteko Bonxeko espetxe atarian ekitaldia egin zuten hainbat Tolosarrak.

Uztailaren 5ean, ostiral gauez irteten ziren Tolosatik Lugora bidaia egin zuten herritarrak. 600 kilometroko bidaia, astebururo-astebururo, Pello Odriozola presoaren senide eta lagunek egiten duten bidaia bera, egin zuten hainbat tolosarrek asmo bakar batekin: herritar presoari elkartasuna erakutsi eta estatua-aren espetxe politika salatzeko asmoarekin hain justu

ere. Izan ere, uztailaren hiruan aske geratu behar zuen Pellok duela 20 urte ezarri zioten zigorra bete ondoren. “Parot doktrina” aplikatu ondoren, ordea beste 10 urtez egon beharko du kartzelan.

Goizean iritsi zen Bonxe-ra Tolosatik abiatutako martxa. Espetxearen atarian ekitaldi xume bat egin zuten “euskal presoak Euskal Herrira” zioten ohialekin eta “Pello askatu” zioten pankarta hartuta.

Dultzainen doinuak alaiturik, inongo arazorik gabe egin zuten elkartasun agerraldia.

SENDO ETA LASAI

Ekitaldiaren ostean, Bonxerako martxan parte hartu zuten zenbait herritarrek Pello bisitatzeko aukera izan zuten. Preso tolosarrek egin zuten ziren hitzetan, Odriozola kementsu dago. “Sendo eta lasai” ikusi zuten. Bide batez, presoak bere askatasunaren

alde burutzen ari diren ekimen guztiak eskertu nahi izan zituen. Hain zuzen ere, Bonxerako martxa egin zuten esanetan, mota honetako ekintzetatik hartzen dute indarra euskal preso politikoek. Horregatik, aurrerantzean Pello Odriozolaren alde zein gainontzeko presoaren alde egingo diren aldarrikapenetan parte hartzeko deia luzatu dute. ■



Aitorpenik gabeko oinazea

EGIA JAKIN, JUSTIZIA EGIN ETA ERREPARAZIO MORALA JASOTZEA ESKATZEN DUTE BIKTIMEN SENITARTEKOEK

Mikel Errazkin Agimezabala (Aranzadi ZE)

Mikel Aizpuru historiariaren hitzetan, gerra oro, eta bereziki, gerra zibilak batailaremuia gainditzen duten espazio ezberdinetan garatzen dira. Horietariko espazio bat borrokan dauden aldeentzat arrisksuak diren edo potentzialki izan daitezkeen pertsonen edo taldeen kontrola, zainketa eta jazarpena da. Gerra garaikideak, borrokariaren eta borrokari ez diren arteko bereizketa lausotzean, ezaugarri hori nabarmendu egin du. Zentzu horretan, Espainiako Gerra Zibila II Mundu-Gerra-

Francoren diktadurak era guztietako metodoak erabili zituen izua eta errepresioa ezarri, eta Gerra Zibilean garaitutakoen erresistentzia zein duintasuna zapaltzeko helburuarekin. Diktadurak gogortasun osoz sistematikoki erabili zituen desagerrarazteak, torturak, lan, ideologia eta hizkuntza arloko diskriminazioak, errepresio politikoa eta sexu, arraza zein erlijio arrazoiengatikoko jazarpenak. Ez bakarrik kolpe militarrean galtzaille izan zirenen aurka. Nahikoa zen “gorri” edo “separatista” baten senitartekoa edo laguna izatea, diktaduraren errepresioa jasateko. Estatu epainiarrak krimen hauek ez ditu gertatu moduan aitortu eta frankismo garaiko biktimak erabat ahaztu zituen Espainiako trantsizio demokratikoak. Diktadurako berrogei urte luzeetan pairatutako oinazeak ez du oraindik merezi duen aitormena jaso.

ren aurrekari paradigmatikoa izan zen.

1936ko martxoan, matxinadaren prestaketa lanetan ari zela Emilio Mola jeneralak idatzita utzi zue-

nez “la acción ha de ser en extremo violenta, para reducir lo antes posible el enemigo, que es fuerte y bien organizado”. Jarraian lehen helburuak markatu zituen: “todos

los directivos de los partidos políticos, sociedades o sindicatos no afectos al Movimiento, se les deben aplicar castigos ejemplares, para estrangular los movimientos de rebeldía o huelgas. Hay que sembrar el terror... hay que dejar sensación de dominio eliminando sin escrúpulos ni vacilación a todos los que no piensen como nosotros”.

Ildo honetatik, garai hartan egindako hilketetako asko gauze egin ziren, heriotza haien egiaztagiririk utzi gabe. Horregatik, biktimen senitartekoei zailtasun handiak izaten zituzten heriotzak egiaztatze edota hilobi komunitan lurperatuak izan ziren gorpuzkinak aurkitzeko. Horrelako kasuetan, “gorriak” delakoan alar-

(hurrengo orrian jarraitzen du)

gunak edota alabak errepresaliei aurre egin beharrean aurkitzen ziren, soil-soilik dolua ekartzea-gatik, mota guztietako abusuak pairarazten zizkietelarik.

1936ko gerran garatutako errepresioak alderdi eta eredu ezberdinak izan zituen, eta helburua, aurkako pertsonak eta erakundek erresistentziarako zuten gaitasuna deuseztatzea zen. Matxinatutako indarren errepresioak hiru ikuspuntu izan zituen: menderatze soziopolitikoak, alde legitimoari erantzun posible bat emateko asmoa kentzea, eta militar matxinatuek eta beren laguntzaileek irudikatutako baloreen aurkakoa ordezkatzeko zuten guztia fisikoki deuseztatzea. Biolentzia sozializatu egin zen.



Garaituak eta beren senitartekoak izutzea eta iraintzea ziren biolentzia horren helburuak. Milizia armatuen presentziak edozein unetan zigor bat jasan zitekeela gogorarazten zuen. Justo Mokoroa tolosarrak adierazi zuenez: “Sobre la memoria de los muertos, que casi siempre dejaban a la familia en la miseria, se concitaba la maledicencia pública, haciendo correr la voz de que se les había encontrado documentación comprometedorá, para disculpar el crimen y deshonrar a la víctima y a sus familiares”.

MEMORIZIDIOA GAUZATUZ

Borroka zibilaren osteko urteetan, erregimen berriak gatazkaren interpretazio jakin bat inposatu zuen gizartean. Alde batetik, gerra ‘gorrien’ aurkako gurutzada modura goretsi zuen eta garaipena eta garaileen heroismoa behin eta berriro ospatu eta goraipatu zituen.

Berrogei urtez, ofizialki, talde batean bakar-bakarrik gertatu ziren hildakoak; ‘Jainkoaren eta Espainiaren izenean’ eroritako hilobi komunak bakar-bakarrik; indarkeria iraultzailea baino ez. Tolosan ere, garaiko historiografiarentzat errepublikarrek fusilatutako 15 tolosar eskuindar bakarrik har-

tu ziren kontutan. Eta guzti horretan oinarriturik abiatu ziren memoriaren politikak. Primo Levik ‘memorizidio’ izenez kontzeptualizatu zuena burutzen saiatu zen diktadura frankista. Memorizidioa bizentzutan bururatua: lehenik garaipenaren biktimena, eta bigarrenik garaipena inposatzeko erabilitako bideena. Francoren Espainiak ezin zuen atzerrian bere burua erregimen hiltzaile baten moduan erakutsi, non existitzen baitziren kontzentraziozelaiak, lan behartuak, hilketa guztiz sumarioak, epaitegi bereziak, ume-bahiketak kartzeletan eta,

oro har, giza eskubideen aurkako mota guztietako bortxaketa sistematikoak. Horregatik, isiltasunaren eta ukapenaren makineria martxan jarri zen, ahanztura helburu.

Propaganda frankistak 1939. urtea aukeratu zuen ‘Garaipenaren urtea’ ospatzeko. Hortik aurrera, Espainiar estatuko lurralde luze-zabal osoan “Jainkoagatik eta Espainiagatik hildakoen” omenezko monumentuak eta gurutzeak altzarazi zituen. Tolosan Trianguloko enparantzian kokatu zituen.

Neurri hauek ez zetozen bat



biktima errepublikazaleek eta euren senideek jaso zuten tratamenduarekin, lehenik aipatutako onuretatik kanpo gelditzeaz gain, Espainiaren etsaitzat ere jo baitzituen propaganda ofizialak, gerran zehar egindako izugarrikeri askoren erantzule gisa erdeinatuak izan zirelarik. Gauzak horrela, familia askok euren samina isilean bizi behar izan zituen, inongo kalte-ordainik lortzeko aukerarik izan gabe, ildo horretatik bideraturiko ekin-tzek abusu gehiago pairaraziko zizkieten beldurrez.

Gaur egun ia ez dago eragozpenik Nazionalen aldean egon zirenek jasan zituzten ondorioak ezagutzeko, baina askoz ere zailagoa da alde errepublikarrekoen sufrimendua neurtzea eta azaltzea. Batetik, frankismoa ez zelako arduratu etsaiaren benetak deuseztatze fisikoarekin zerikusia zuten datuak biltzeaz, beraz ez dira inondik ere erregistroetan azaltzen. Bestetik, diktadura osteko azken urteetan ez delako ahalegin sistematikorik egin isileko sufrimendu hura ikertzeko. Beraz, ahoz-aho kontatu dena ikertzeko ahaleginik egin ez izanak, eta dokumentazioari dagokionez, ezer gutxi egoteak asko zailtzen du ikerketa. Esate baterako Baran-

dianek jasotako Ignacio Oleagaren lekukotzen arabera, 1936ko azarora arte alde faki-ziosoko militarrek 113 lagun lurperatu zituzten Tolosan. Aldiz “Tolosa 1936-45” ikerketak 1936-39 artean fusilatutako 87 tolosarren testuingurua soilik dokumentatu ahal izan du.

HIRUGARREN BELAUNALDIA MEMORIA ALDARRIKATZEN

“Somos los nietos de los obreros que nunca pudisteis matar / Somos los nietos de los que perdieron la guerra civil”. Ahapaldi hau “La Polla Records” euskal punk-rock taldearen “No somos nada” kantakoa da, zeinak gizarte zibilaren mugimenduen zutabea ongi laburbiltzen duen, gerraren biktimen hirugarren belaunaldiak bere jatorri sozial eta politikoarekiko duen identifikazioa adieraziz. Aitona-amona asasinatu eta errepresaliatu oroimena berreskuratu nahi da –“nunca pudisteis matar”- eta lehen espazio intrafamiliarraren parte zena, kanporantz ateratzen da. Gerra Zibileko biktimen eta diktaduraren lehen urteetako zuzeneko belaunaldiak balio soziala atxikitzen dute. Haietaz harro hitz egin, eta lehen aldikoz,

familian leku erreferentzial bat hartzen dute.

Azken urteetan, gerrako eta diktadurako biktimen memoria, batez ere erregimen frankistak diskriminatu zituen haiena, berreskuratzea eskatzen duten ekimenek indar handia hartu dute gizarte zibilaren bultzadari esker. Iraganari aurre egitea eta gerrako eta diktadurako gertaera izugarriaren jazotakoa argitzea exijitu duten elkarteek eztabaida bizia piztu dute Espainiaren arestiko historia berriro aztertze komenigarritasunari buruz.

Baina, zer da familiartekoez gorpuek ateratzearekin bilatzen dutena? Lehenik eta behin lortu nahi dena, ahaideak soro edo errepede bazterretatik atera eta behar bezala ehortziak izatea da. Trauma kultural bat da. Pertsona baten ziklo kulturala itxi nahi da berriro komunitatearen testuinguru sozialean sartuz. Izan ere komunitatea bizirik daudenek osatzen dute, baina baita hilik daudenek ere. Hildakoez kulturalki definitutako tokiak dituzte eta familiartekoez beren hildakoez erlazioatzeko espazioak dira hauek. Hildakoez gogoratzea eta beraiei gorazarre egitea ahalbidetzen dute kulturalki markatutako errito, otoitz eta omenaldien bidez. Gerran, galtzaileen alderdian erailak izan zirenen familiek ezin izan zuten inoiz beren ahaideen ziklo kulturala osatu. Alargun, ama eta gainerakoei debekatu egin zitzaizen beren ahaideen heriotzagatik kulturalki definituak dauden ekintzak burutzea (dolua, arropa beltzak, etab.). Familiartekoez aldarrikatzen dutena beraz honako hauekin dago lotua:

- Gertatutakoa eta bere biolentzia errekonozitzea eta ezagutzea.

- Gorpuen berreskurapena. Behar bezala ehortzea, hau da, gatazka kulturala ixtea.

- Biktimen dignifikazioa.


- Hainbeste urtez euren baitan egon den traumaz libratzea eta hildakoei merezi duten tokia eskaintzea.

- Elkar-ulterzerako beharrezkoa den errespetua lortzea.

Urte askotako isiltasunaren

tu zirenetik 70. urtera, gertatutakoa ez dugu egiazki ezagutzen. Tolosan ehunka errepresaliatu eta erbesteratu, hamarnaka gorpuek soro eta bide-bazterretan, fusilatu ondoren izenik gabeko hilobietan ehortziak; hamaika kartzeleratu eta torturatu, eta diziplina-batailoietan bortxazko lanetan aritzera behartuak...; ezkutuan gorde da egia trantsizioaren ondoren ere. Ez dute jasandako errepresioaren berri eman ahal diguten doku-

“ostu” eta hori gabe garatutakoa sortu da. Guztioi dagokigun betekizun moralak da, Frankismo-garaiko biktimekin eta euren borrokaren eta jazarpenaren eragile izan ziren ideiekin, trantsizio demokratikoak erakutsi ez zuen begirunearen zorra ordaintzea. Urte luzeetan bidegabe ahaztuta egon ondoren, merezi dutena jaso, eta egungo gizartearen artean pairatutakoa ezagutarazi eta iraunarazteko bidea da.



Aldaba Txikiko Isastegi Berri baserrian hobi komun bat dago.

ondoren, gaur egun gero eta ahots gehiagok aldarrikatzen du oroimen historikoa; hau da, egia jakin, justizia egin eta errepresio morala jasotzea. Errepresio horren biktimek Espainiako Gerra Zibilean exekutatutako herritarrei behingoz errespetuzko aitortza publikoa egitea aldarrikatzen dute. Senitartekoez 70 urtez isilean jasan-dako mina eta bidegabekeria, gutxienez moralki zuzentzeko ordua dela uste dute.

BIKTIMENTZAKO AITORMEN ESKE

Oraindik ere, militarrekaltxa-

mentuetara heltzen utzi eta, zailtasunak jarri dituzte, hainbatetan, besterik gabe, testigantza horiek jasotzen zituzten artxiboak suntsitu eta desagerrarazi egin dituztelarik.

Frankismo-garaiko diktaduran izan zen errepresioa ezkutatu garatu zen “ereduzko trantsizioa” izena daraman hori. “Deserosoa” suertatzen zen frankismo-garaiko biktimen oroimena. Horregatik ahanzturan jarraitu zuen. Honela, Gerra Zibileko zauriak baztertu egiten zirela pentsatu zuen gizarteak. Baina, egia ezkutatuta, gizarte baten historia zatia

Honela, gure iraganeko onena eta zintzoena geureganatu eta gure historiaren orrialde izugarri bati duintasunez aurre egin ahal izango diogu, eta aldi berean, egiazko bizikidetzaren oinarria ezarri. Teruelgo hilotzaren bateko epitafioak dioen legez: “Si nos olvidáis, será cuando verdaderamente, moriremos”. Are okerrago, haien borrokaren eta jazarpenaren eragile izan ziren ideiak, askatasuna, demokrazia, elkartasuna, justizia soziala eta aurrerabidea ahaztuz gero, horien izenak historiatik ezabatuko ditugu. ■



AGURTZANE BERNARAS >>> AMEZKETARRAK GERRAN DESAGERTUTAKO AITONA AURKITU DU

Hirugarren belaunaldia egian

Fikziozko nobela bat izan zitekeen, baina Fidel Bueno eta Maria Beldarrain Amezketako senar-emazteen istorioa benetakoa da. Errealak. 1936. urte amaieran desagertu zen Fidel. Geroztik, bere familiak ez zuen gerrara joandako senidearen berririk izan. 1980. urtean, Agurtzane Bernaras, bere aitona bila hasi zen. Bere kasa egindako ikerketen bidez eta Aranzadi Zientzia Elkarteak eskainitako laguntzari esker, desagertutako senidearen gorpuzkinak aurkitu ditu. Ez hori bakarrik; aitona oroimena berreskuratu du.

Mikel Errazkin (Aranzadi Z.E) eta
Leire Zubeldia

Fidel Bueno De Francisco zen Agurtzane Bernarase aitona. Guadalajarako Baides herrian jaio zen. “Herri txikia zen. Abeltzaintzatik bizi ziren eta nire aitona ez zitzaion lanbide hori batere gustatzen”, dio Agurtzanek. Baidesetik trenbidea igarotzen zenez, egun batean trenera igo, eta Donostiara etorri zen. “Aitonaren osaba batek Oreretan gailera fabrika bat zuen, eta bertan hasi zen lanean”. Geroztik, gozogile izan zen lanbidez. Hain zuzen ere, Oreretan lanean ari zela ezagutu zuen Fidel Buenok bere emazte izango zena, Agurtzaneren amona, Maria Beldarrain amezketarra. Ezkondu eta Amezketara joan ziren bizitzera. Sei hi-



Agurtzane Bernarasek kontatu dio Galtzaundiri, bere aitona aurkitzeko ikerketa nola eraman duen aurrera.

labetez bertan bizitu ziren. Ondoren, Tolosako Larramendi kalera mugitu ziren. Hemen jaio ziren Agurtzaneren ama eta osaba. “Aitona gaixo jarri zen. Ospitale-ratuta egon zen. Nire amona aitonaekin egotetik etxera itzuli zen batean, dena hankaz gora topatu zuen”. Gerra hasi aurretik izan zen hori. Fidel ezkertiarra zen, PSOE eta UGTko afiliatua. Ideologia hori bere aurrekoengandik jaso zuen. Tradizio ezkertiarreko familia zen berea. Bere osaba, Enrique De Francisco,

UGTko eta PSOEko kidea zen, Tolosan bi erakunde hauek antolatzen jardun zuen, eta PSOEko exekutibako kidea izateaz gain, exilioan Espainiako Gobernua-ren Ministroa izan zen. “Kezkatzeko motiboak izan arren, gertatutakoari ez zioten garrantziarik eman”. Baina 1936ko urte beltzak aurrera egin ahala, giroa berotzen hasi zen eta horrelaxe esan zion Fidel Buenok Maria Beldarrain emazteari: “Zerbait handia gertatuko da hemen. Zu joan zaitez Amezketara umeekin. Han


hobeto egongo zarete”. Fidel Tolosan geratu zen. Berritro gaixo erori, eta ospitalean zegoela mobilizatzen deitu zuten. Tolosako UGTren Carlos Marx konpainian ibili zen. Eusko Gudarostea sortu zenean berriz, Rusia Batailoiko miliziarra izan zen. Frontean zegoela, telegramen bidez komunikatzen zen emaztea eta familiarekin. Harreman-bide honek ordea ez zuen luze iraun. Fidel, bere familiak PSOE eta UGTn zuen pisuz jakitun, emazteak eta seme alabek errepresaliak

en bila

jasango zituzten beldur zen. “Aitonak amonari esan zion, gudari moduan zebilela eta hobe izango zela familiarekin loturarik ez edukitzea”. Hori izan zen Maria Beldarrainek senarraren berri izan zuen azken aldia. 1936. urte amaiera zen. Fidel Bueno betirako desagertu zen.

ITXAROPENEZ, ITXAROTEN

“Lasai. Bizi banaiz, azalduko naiz”, esan zion gerrara zihoan gudariak emazteari. Hitz horiek beti izan zituen gogoan Mariak. Horregatik senarra noiz azalduko zain pasa zituen urteak eta urteak. Honela adierazi du bere bilobak: “Aitonak bizi bazen agertuko zela esan zionez, amonak beti mantendu zuen esperantza hori. Hala esaten zuen beti berak. *Igual ez segituan, baina agertuko da*”. Urteak joan eta urteak etorri, Bueno-Beldarrain familian ez zuten gerrara joandako aitaren berririk jasotzen. Pixkanaka-pixkanaka, Maria Beldarraini senarra itzuliko zenaren esperantza itzaltzen joan zitzaion. “Nik uste dut 1950-1955 urteen artean galdu zuela itxaropena”, dio Agurtzanek. Gerra 1939an amaitu zen. Exiliatutako jendea itzultzen hasi zen eta giroa estabilizatu egin zen. Fidelek desagertuta jarraitzen zuen ordea. “1957. urtean nire lehenegusia, hau da, lehenengo biloba jaio zenean, amonak esan zuen: *ia ez da gehiago etorriko*”. Orduz geroztik, Maria Beldarrain beltzez jantzita ibili



Fidel Buenoren exilio fitxa. Dokumentu hau izan zen desagertuaren paraderoa aurkitzeko gakoa eman zuena (Sabino Arana Fundazioa).

zen. Senarra ez agertzean hilda zegoela pentsatu zuen Mariak. Bere burua alarguntzat hartu zuen. Hala ere, ez zuen daturik senarra benetan hila zegoela baieztatzen zuenik. “Beste familiek eskutitzak jasotzen zituzten senidea frontean hil zela esanez. Nire amonak ez zuen inoiz horrelakorik jaso”. Senarraren heriotzaren ideia barneratuta zuen erabat. Baina inguruneak ez zion errealitatea irensten lagundu. “Heriotza baieztatzen zuen agiri ofizialik ez izatean, jendeak ez zuen amonaren alarguntza onartzen. Gainera, aitona bere bizia salbatzeko gai ikusten zuten Amezketan. Hilda zegoenik ezin zuten sinetsi”. Maria Beldarrainek ez zuen inoiz alarguntza pentsiorik jaso.

DOLU EZINTASUNA ETA INTRAMEMORIA

Gure kulturari, komunitate bizidunek ez ezik hildakoek ere osatzen dute. Pertsona bat hiltzen denean bizidunentzat ez da amaitzen. Dolua oso garrantzitsua da ziklo kultural hori ixteko. Desagertutakoentzako familiek dolu etenaldia pairatu dute. Hori da Bueno-Beldarrain sendiaren kasua. Dolu ezintasunak eragin zion samina izugarria da. Batetik, senarra edo aitaren heriotzaren onarpen sozialik ez dute. Bestetik, ez daukate zendutako senidearekiko dolua adierazteko leku fisikorik. Horregatik uste du Agurtzanek hasi zela amona Amezketako eliza garbitzen. “Amonari loreak izugarri gustatzen zitzaizkion. Baina berak loreak non jarri ez

zuen ez elizan jartzen zituen”.

Dolu ezintasuna oso gaizki eraman zuen Maria Beldarrainek. Hasiera batean, senarraren memoria berarentzat gorde zuen, ez zuen ezer kanporatzen. “Hasieran, seme-alabei aitaren inguruko kontuak kontatzea ere kostatzen zitzaion”. Gerora ere Fidelen oroimena ez da familiatik ateratzen. Seme-alabekin eta bere anai-arrebeekin hitz egiten du soilik bere senarraz. “Gainera, amonak Baidesen bizi diren aitona senartekoekin kontaktua galtzen du. Hori gutxi balitz, Amezketan inork ez du aitona familia ezagutzen. Amona aislatuta geratzen da”.

Agurtzanek eta Maria (hurrengo orrian jarraitzen du)



Fidel Bueno De Francisco soldaduskan (Bueno-Beldarrain sendia).

Beldarrainen gainontzeko bilobek beti izan dute desagertutako aitona berri. “Nire amonak ez zituen gauzak ezkututzen. Gertatu bezala kontatzen zigun dena”. Bueno-Beldarrain sendiaren hirugarren belaunaldia izan zen aitona zer gertatu zitzaion, nolakoa zen eta bere gorpuzkinak non zeuden jakiteko ardura hartu zuena.

BILOBAK OROIMENA BERRESKURATZEN

1980. urtean hasi zen Agurtzane Bernaras aitona Fidelen arrastoari segika. Hasieran oso zaila egin zitzaion. “Fidel Bueno De Francisco. Datu hori besterik ez nuen ikerketa abiatzeko”. Baideseke udaletxera jo zuen lehenik aitona jaiotza agiria eskatzeko.

“PPren eskuetan zegoen orduan udala eta trabak besterik ez zizkidaten jarri”, dio Bernarasek. Gero Donostiako erregistro zibilean eta Archivo Historico Diocesano beregiritu zuen. Azken honek lotura zuen Guadalajarako diocesiarekin, eta horrela, Baideseke erregistro zibileko eta Guadalajarako eliz barrutiko jaiotza agiriak lortu zituen. Bai aitona eta baita honen gurasoenak ere. “Horrela familia egituratu bat lortu nuen.

Orduan, bere jarraipena egitea besterik ez zitzaidan geratzen”. Hori ere ez zen erraza izan. 2003an Aranzadi Zientzia Elkartera jo zuen laguntza bila.

Lehenengo pausoa bibliografia eta erregistro artxiboak arakatzea izan zen. Bertan aurkitutako erreferentziekin 1937ko otsailan oraindik bizirik zegoela baieztatu zuten. Bigarren urratsa, zein batailoietan ibili zen jakitea zen. Fidel Bueno UGTko Carlos Marx batailoian mobilizatu zen lehenik eta ondoren Eusko Gudarosteko Rusia batailoian. Gudari moduan jasotzen zituen nominak baliagarriak izan ziren bere jarraipena egiteko. “Rusia batailoian sartu ziren UGTko eta Tolosako papeleko guztiak. Batailoi hau askotan zigortu zuten. Lehenik Gasteizko ofentsiban eta gero Asturiasen”. Hain zuzen ere, Asturiasen zauri-

tu zuten Fidel Bueno. “Sabelaren inguruan izan zuen zauriak osasun arazoak ekarri zizkion. Biriketan eragina izaten du eta orduz gerotzik gaixo kroniko bilakatu da”. Lehenik Santanderreko ospitalean egon zen 1937ko abuztuaren 17ra arte. Gero, Frantziara igarotzea lortzen du. Burdeoseko ospitalean egon zen eta baita biriketako gaixoentzat berezitatutako Landetako erietxe batean ere. Azkenik Kanboko Les Terrases ospitalean artatzen dute.

Ikertutakoaren haritik tiraka eta agiri berriak aurkitzen zituen heinean, Agurtzane emakume baten izena deskubritu zuen. “Celia Villamediana. Emakume hau ere errepublikarra zen nonbait. Nire ikerketen arabera, elkarrekin etxe bat alokatzen dute Kanbon. Bere emaztea bezala agertzen da agiritan, baina ez ziren senar-emazte izan”. Emakume honek zaindu zuen Agurtzaneren aitona bere gaixoaldian. Kanboko errepublikarren zirkulu batera hurbildu ziren eta han egin zuten bizi. Fidelen osasun egoera dela eta joan etorri asko egiten dituzte Les Terrases erietxera.

Ikerketan aurrera egin ahal izateko ezinbesteko gako Sabino Arana Fundazioan aurkitu zuten agiri bat izan zen. Frantzian errefuxiatutako euskaldunen erroldaren fitxa zen. “Kasualitatez” aurkitu zuten. Fitxaren goiko aldean, eskuz idatzirik zegoen bere heriotza data: 1946ko urriaren 2a. Azpialdean berriz, eskuz baita ere “Les Terrases” jartzen zuen. “Iruditu zitzaigun, heriotza data eta Kanboko erietxearen izena pertsona berak idatzi zituela, kaligrafia ber-

“Aitonak, bizi bazen azalduko zela esan zionez, amonak beti mantendu zuen esperantza hori”.

dina baitzen”, azaldu du Agurtzane. Hortik ondorioztatu zutena zera zen: Bere aitona Les Terrases erietxean hil zela. Agurtzane berehala abiatu zen Kanbora. “Les Terrases ospitaleko zuzendariarekin hitz egin nuen. Ez zidan daturik eman nahi”. Kanboko udaletxera jo zuen gero. “Hemen asko lagundu zidaten”. Udalean ordea ez zuten Fidel Kanbon lurperatuta zegoela ziurtatzen zuten agiririk. Hala ere, herriko hilerrira joan zen Agurtzane. “Frantzian lurperatzaileak hilerritik gertu bizi dira. Horregatik daude hain ongi zainduta. Lurperatzaileak errolda moduko bat du, hilerrian lurperatuta dauden guztien izenekin eta bakoitza non kokatua dagoen zehaztuz”. Hilerriko errolda horretan ikusi zuen Agurtzane bere aitona izena. “Lurperatzaileak lagundu zidan aitona hilibiraino”. Hilarrria ikustean aho zabalik geratu zen Amezketa ikertzailea. Ez soilik aitona aurkitu izanagatik. Hilobiaren egoera onak harritu zuen. “Hilarrriak berria zela ematen zuen. Loreak jarri berriak zituen! Eta hori 1946an hil zela!” kontatu du oraindik sinetsi ezinik. Honen azalpena aurkitu arte ez zuen etsi Agurtzane. Kanboko udalera jo zuen berriz ere. Orduan konturatu zen bere aitona hilibia erositakoa zela. Norbaitek dirutza ordaindu zuen bere garaian Fidel Buenoren gorpuzkinak betirako leku horretan

mantentzearen truke. Ekin-tza honen atzean, Fidelek lagun izan zuen Celia Villamediana zegoen. “Celiak Eusko Jaurlaritzari idatzitako eskutitz batzuk aurkitu nituen. Bertan dirulaguntza bat eskatzen zuen aitona hilobian erosi ahal izateko. Jaurlaritzak ezetz erantzun zion. Ez dakit nola, baina Celia eta Morcillo abizena zuen bere senarraren artean ordaindu zuten azkenean”. Kontakizunaren puntu honetara iristean pena handiz kontatu du Agurtzanek, Celia Villamediana 1980an hil zela eta bere senarra, Morcillo delakoa, 2005ean. Agurtzanek, 2006an aurkitu zuen aitona.

EGIA JAKITEAREN SATISFAKZIOA

Elkarrizketa amaitu aurretik derrigorrez egin beharreko galdera zen ondoko hau: Zer sentitu zenuen aitona aurkitzean? “Bi gauza: Batetik izugarriko satisfakzioa. Nire amonak zuen sentimendua ez zela batere okerra. 1946an hil zela aitona. Eta bestetik, pena. Nire amona 1990an hil zelako aitona berririk jakin gabe. Bi sentimendu kontrajarri

horiek izan nituen”. Agurtzaneren amak, Fidelen alabak ere poz handia hartu zuen aita aurkitu zutela jakitean. “Satisfakzio handia du, izugarria. Lehengoan Kanbon izan zen bere aitari loreak jartzen”. Fidel zendu zenetik 62 urte igaro eta gero Bueno-Beldarrain sendiak badu jada loreak non jarri.

Orain arte ezkutuan zegoen egia azaleratu du Agurtzanek. Lan zail hori instituzioen babesik eta laguntzarik gabe egin behar izanak orde, amorrua ematen dio. “Gerra Zibilaren inguruko gauzak ezkutuan gorde dituzte orain arte. Ez da ezer egin gure historiaren une hori azaltzeko”. Lan hori instituzioei dagokiela uste du amezketarrak, eta Espainiako Gobernuari gordeta duten informazio guztia eskura uzteko deia egin dio.

Egia jakin ostean, justizia egin eta erreparazio morala eskatzen dute gerrako biktimen senideek. “Nik ez dut esaten bakoitzari domina bat eman behar zaionik. Soilik errekonozimendua eskatzen dugu. Jende hark zer pasa zuen eta haien ondorengoak nola bizitu ziren

FIDEL BUENOREN BIOGRAFIA LABURRA

Fidel Bueno De Francisco Guadalajarako Baides herrian 1910eko apirilaren 24an jaio zen. PSOEko eta UGTko afiliatua, Errepublikaren aurkako Matxinada burutu ostean, 1936ko abuztuaren 21an Tolosako UGTren Carlos Marx konpainian mobilizatu zen; García Lavid kapitainaren aginduean, zaldunen erregimentuan eta hasieran Urnietako zutabeen jardun zuen. 1936ko urriaren 7an Euzko Gudarostea-Armada Vasca eratu zenean Juventudes Socialistas Unificadasen Rusia batailoiean miliziar gisa jardun zuen (Euzko Gudarosteko 8. batailoia). Bizkaiko frontean aipatu batailoiko bigarren konpainiako miliziar gisa jardun eta gero, 1937ko uztailaren 29an bronkitisa zela-eta Santanderreko 7. Ospitale Militarrean egon zen, harik eta abuztuaren 15ean Gijonera ebakatu zuten arte. Han gerrako mutilazioa ziurtatu zioten, birika tuberkulosiarengatik, eta Catalunya errefuxiatu zen, gerrako mutilatuen pensioa jasotzen zuelarik. Behin Bando Nazionalako soldauak Catalunya sartu zirenean, Frantziara egin zuen ihes, Pirinio Orientaleko departamentuko Argeles-sur-Mer-eko harrera zelaian egon zelarik (Mediterraneoko kostaldean). Kontzentrazio esparru honenatik Bordelera joan zen exiliatu gisa eta hainbat ospitale eta sanatorio igaro ostean, Kanbon hil zen 1946ko urriaren 2an, bertako Sanatorium "Les Terrases"en.

“Aitona aurkitzean bi gauza sentitu nituen: Batetik satisfakzioa. Nire amonak zuen sentimendua ez zela batere okerra jakitea. Bestetik, pena”.

kuratu duen bilobak Fidel horrela gogoratua izan dadin nahi du: “Diktadura baten aurrean, ideologia bat eta balore sozial batzuk defendatu zituen gizona”.

azaltzea”. Errekonozimendu hori iritsi bitartean, aitona oroimena berres-

kutxa

SANTA LUZIA GARAGEA

Grua zerbitzua 24 orduetan

NISSAN

943 653 491 943 653 874
943 653 985 943 806 020

Santa Luzia, 1 TOLOSA

IRATZAR

Erlojutegia • Konponketak
Zilar gaietan berezitasuna
Diseinuko zilarra
Bisuteria

Santa Maria Plaza, 1 - Nagusia
TOLOSA • Tel.: 943 674 615

IBARRA

Argi lanak, antenak
eta portero automatikoak

Apaiz-Erreka, 5 • 20400 IBARRA
Tel.: 943 675 878 • Faxa: 943 674 181
Mobila: 639 72 42 60

KONTSULTA PSIKOLOGIKOA

Iñigo Jiménez
Psikologoa eta terapeuta gestaltikoa

Sta. M^a de la Asunción klinika

Gazte eta helduak Dependentsia eta
Dolu-terapia menpekotasun
Psikoterapia-prozesua terapiak: tabakismoa

Orduetgia: ostegunetan, 15:00 - 18:00

ONAK
MARMOLAK, S.A.

Mota guztietako lanak:
Granitoan marmolean eta
beste harri batzuetan

Errazu poligonoa • Sailsa, 1 • URNETA
Tel.: 943 331 227 • Faxa: 943 008 613

IBARRA >>> HELENA BARAIBAR, EUSKARAZ BIZIKO GIPUZKOAKO KOORDINATZAILEA DA

“Euskaraz Bizik ikasle euskaldunak”

Helena Baraibarrek (Ibarra, 1960) hogeita zortzi urte egin ditu Tolosako Laskorain Ikastolan lanean. Euskal Filologia bukatu ondoren gehienbat euskararekin loturiko gaiak eman izan ditu. Laskorain Ikastola Emeterio Zaldibiaren eskutik aitzindaria zen Euskaraz Bizi proiektuan. 1985ean sortu zenetik parte hartu du bertan. Baraibarrek lan handia egin zuen ikastolan egitasmoaren dinamizatzaile moduan, eta duela 4 urtetik, Gipuzkoako Euskaraz Bizi proiektuaren koordinatzailea da EHIKn (Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioan).

Felix Aiestaran

Zer nolako esperientzia izan da Gipuzkoako Euskaraz Bizi koordinatzailea izatea?

Ezagutzen ez nituen Gipuzkoako beste ikastolen egoerara gerturatzeko balio izan dit. *Euskaraz Bizi* eta bide batez ikastolen mugimendua non dagoen ezagutzeko balio izan dit. Oso aberasgarria izan da. Neronen formaziorako ere balio izan dit. Erantzukizun handia da, jende ugari zuri begira dagoelako. Gipuzkoan hogeita zazpi ikastola daude *Euskaraz Bizi* proiektuan.

Zein da zure zeregina?

Nire lana ikastoletan *Euskaraz Bizi* proiektuan hizkuntz normalizazio alorrean lan koordinatua egitea da. Horretarako teknikariak hezteak, ulertaraziz, *Euskaraz Bizi* proiektua garatzea ez dela urtean euskal ku-



“Gure herrietako euskara zerbitzuarekin harremana ez da behar adinakoa izan”.

tsuko lau festa antolatzea eta kito. Hori baino lan sakonagoa eta iraunkorragoa dela ohartarazi behar zaie. Hizkuntz teknikariak dinamizazio lan garrantzitsua bete behar du zuzendaritza, guraso, irakasle eta ikasleen artean. *Euskaraz Bizik* ikasle euskaldun eleanitzak lortu nahi ditu, eta horretarako, ikaslearen komunikaziorako lehen hizkuntza euskarak izan behar du. Hizkuntz normalizazio proiektuak, hortaz, ikastetxe osoa hartu behar du. Zeregin honetan teknikariak janzteko hileroko egin ohi dugu mintegia. Gure erronka ikastoletako zuzendaritzek *Euskaraz Bizi* normalkuntza proiektuari babes osoa ematea da eta ikasto-

laren Hezkuntza Proiektuan lehenestea.

Zer da Argitxoren figura?

Euskaraz Biziren hasierako filosofiatik datorren eta haur eta gaztetxoaren fantasiarako munduan txertatzen den irudimenezko pertsonaia da. Haurtzaroko irudimen mundu horretan euskararen erreferente garbia izan behar zuen eta horrelaxe sortu zen Argitxo. Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako lehen zikloan presentzia handia du. Argitxo toki guztietan dago eta ikaslearekin toki guztietara joaten da. Hizkuntza portae- ran eragiteko irakaslearen euskararen aldeko etengabeko errefortzua ezinbestekoa da

eta horretan laguntzen du Argitxok. Irudia hutsik ez da ezer, irakasleak egiten duen Argitxoren erabilera ematen dio indarra. Eta Laskorain ikastolan zortzi urterako haurrak euskalduntasuna txertatu du. HH eta LHko ikasleengan euskararen aldeko haurtuta automatikoa izatea lortu behar da. Nerabeengan euskararekiko kontzientzia ernaltzeko, berriz, Argi Txo! figura helduagoa sortu zen.

Ulibarri programan Tolosaldeko ikastetxe ugari sartuta daude.

Zer da Ulibarri programa?

Ulibarri hizkuntza normalizazio programa da. EAEko 430 ikastetxe daude barruan. *Euskaraz Biziko* ikastolak ere

un eleanitzak lortu nahi ditu”

barruan daude. Ulibarri eta ikastolen konfederazioaren artean elkarlan handia dago. Mota guztietako ikastetxe ugari dago eta bitarteko handiak daude. Ganoraz heltzeko eginkizun asko daude oraindik. Hizkuntza normal-kuntzan edozein ikastetxetan aritzea lan serioa da. Lan nekeza eta zabala. Hizkuntza portaeretan aldaketarik eragiteko urteetako lan esanguratsua behar da: zabala, sakona eta iraunkorra, teknikariak ez ezik klaustro osoa eta zuzendaritza ere inplikatzeko dituen.

Ez al dute ikastetxeek zama handiegia gizartea euskalduntzea bere gain uzten zaienean?

Tolosaldeko ikastola guztiak *Euskaraz Bizi* proiektuaren barruan daude. Ikastetxeek lana iraupen eta intentsitatez egiteak hizkuntz erabilera eragina izan du. Erabilera areagotzen duten jarduerak zabaldu egin behar dira ikastetxean. Euskaraz egiteko ohitura finkatzean, lagunarte horretatik kanpo ere euskaraz aritzeko hazia eriten ariko gara. *Euskaraz Bizitik* ikastolak euskararen arnasa gunea izan behar duela esaten dugu. Ikastolak kalitatezko euskara irakasteaz gain, euskararentzat erabilpen esparruak irabazten saiatu be-

har du, aisiarekin lotutako eremu ez-curricularra delako ere antolatuz hizkuntz irizpide jakinekin.

Badirudi ezagupenean aurrerapena izan dela, baina erabilera ez da horrenbeste aurreratu...

Azken kale-neurketen arabera gazteen arteko erabilera beheranzko joeran dator. Deigarria egiten da DBH eta Batxilergoko gure ikasleek, kanpoko ikasleekin elkartzen direnean, “inork ez du-eta euskaraz egiten” aipatzea. Laskoraingo gazte hauen erabilera gizarteko gora dago. Gure ikasleek euskararekiko identifikazio handia dute. *Euskaraz Bizik* eta, oro har, normalkuntzak duen gabezia handienetakoa eskolatik herrirako jauzi horretan dago. Gure herrietako euskara zerbitzuekin harremana ez da behar adinakoa. Hurrengo urteetara begira, Euskal Herriko *Euskaraz Bizitik* lan ildo modura zehaztuta dugu: eragileen artean ondo taiututako elkarlana beharrezkoa da. Normalkuntza planak ikastetxea, udala eta beste hainbat eragilek eratzen dituzten ekimenak bere barnean hartu behar ditu.

Curriculumaren arloan zein berrikuntza egin behar dira?

Azken hogeita hamar urteotan ikusi dugu ikasketa me-

moristikoak, hutsuneak bete-tzeak, tartekako idazketa eta irakurketak ezagutza mailan nolabaiteko urratsa ematen laguntzen duela, baina kompetentzia komunikatiboan aurrera egiten nekez eragiten duela. Orain dela sei urte Ikastolen Konfederazioan abian jarri zen Hizkuntza Proiektuan zerbait bistaratu bada zera izan da: ikasleari ez diogu hizketan irakatsi eta oro har ez dugu hizkuntz erabiltzaile kompetente egin. Bide berriak urratzen hasiak gara dagoeneko, testu liburu egokiak ditugu eskura eta klaustroen esku dago erabilera egokia ematea. Gelan ikuspegi komunikatibotik aritu beharra dago. Baina ahozko komunikazioan bide luzea dugu egin-gai irakasleok, prestakuntza premia gorria dago.

Aisialdia eta euskara lotzeak zenbateko garrantzia du?

Berebiziko garrantzia du. Gazteak berez euskaraz mintzatu daitezten, komunikazio-gaitasunarekin batera, beharrezkoa du hizkuntzarekiko hainbat pertzepzio haustea: ikasketa-hizkuntza, herri txikietakoa, mendi usainekoa, tradizioari lotua, halako kultur adierazpeni lotua, halako bizi-molderi... Zama hau guztia arindu eta euskara “ona” den zerbaitekin, desira-

garria, modernoa, atsegina... lotu behar da eta horretan aisialdiko eskaintza estrategikoki balia liteke beti ere hizkuntz irizpideak jarrita.

Zenbateko eragina du inmigrazioak?

Badu eragina, noski. Gure jardunbidean esnarazi gaituzte. Alor honetan ere udalarekin harreman sakon eta zabalagoa izan behar dugu. Etorkinei euskara ikastea balio erantsia dela ikustarazi behar diegu.

Zein erronka ditu Euskaraz Bizik?

Lehenik ikastola osoa hizkuntz normalizazioan inplikatu izatea eta proiektua eskola ordutik eremu ez-curricularra hedatzea izango da. Hizkuntza irizpidea alor guztietan zabaldu behar da. Begiraleari euskaraz egitea zein garrantzitsua den azaldu behar zaio. Gurasoengana bidea ere egin beharra dago, duen euskararen ezagutza dena delakoa izanik ere, bere jarrerak umearengan izango duen eraginaz kontziente izan dadin. Plan-gintza ikastola osoan indarrean jarri eta ikastolatik herri osora jauzi egitea da xedea. ■



Santa Luzia Auzoa, 1 - Tel.: 943 673 118 -TOLOSA

Amelxe

LORATEGIA CB

Extebarru zelaia kalerako lorak.
Lorategi lanabesak.
Lora legor eta apaindura tresnak.



Saldías Miguel

CORREDURIA DE SEGUROS
ASEGURUETAKO ARTEKARITZA

N. D.G.S. J.1759

SALDIAS MIGUEL - Nafarroa Etorbidea, 12-behea
Tel.: 943 651 189 - 943 653 462
Faxa: 943 653 462 - 20400 Tolosa (Gipuzkoa)

Bizi-asegurua
Kotxe-asegurua
Istripuak
Gaisotasunak
Ospitalizazioak
Subsidioak
Lan-istripuak
Enpresa txiki eta ertainak
Erantzukizun zibila
Etxe-asegurua
Denda-asegurua
Erretiroak
Inbertsio fondoak

Bigarren urrezko dominar

AURTENGOA BERE KIROL IBILBIDEKO DENBORALDIRIK ONENETARIKO

Leire Zubeldia

Kirolari batek nola hartzen du itxasorako bidea, gainera lehorrekoa izanda?

Nire anaiarekin hasi nintzen belan. Nire gurasoekin Esako urtegiara joaten ginen urtero oportetara. Han ikastaro txiki bat egin genuen eta hala hasi ginen. Gustatu egin zitzaigun. Hondarribiko bela eskolan izena eman genuen eta lehia-tzen hasi ginen, gaur arte. Tarte batean bela-ontzitik jaitsi eta bizikleta gainera igo nintzen. Afizionatuetan ibili nintzen hiru urtez edo. Baina afizio moduan hartu nuen bizikleta. Gero belara bueltatu nintzen osterara. 1998an izan zen hori. Garai horretan, Iker beste kide batekin zebilen 49er mailan. Bere laguna lesionatu egin zen, eta gainera, gorpuzkerarengatik eta, ez zuten bikote parekatua izatea lortzen. Berarekin nabigatzea proposatu zidan. Elkarrekin konpetitu genuen. Esperiencia

Lehorreko marinela da Xabi Fernandez ibartarra. Hala ere arraiak bezala moldatzen da uretan. Bela-ontziaren barruan Xabi eta Ikerrek pertsona bakarra osatzen dute. Haizearekin dantzan, Europako Txapelketak eta munduko kopak irabazi dituzte. 2004an Atenasen jantzitako urrezko domina defendatzera joango dira orain Txinara. Zaila da Ibarra-ko marinela portuan harrapatzea. Etxera egin duen bisita bat probestuz jo du Galtzaundik Fernandezengana. Abuztuaren 10ean hasiko den proba olinpikoari begira dituen sentsazioen berri eman du.

gustatu egin zitzaidan. Bizikleta utzi eta bela-ontzian gelditzea erabaki nuen.

Europako txapelak izan zarete 3 aldiz, 2002 eta 2004an mundialeko txapelak, eta 2004ko Atenasko Joko Olinpikoetan urrezko domina jantzi zenuen. Zuen bidea arrakastaren bidea izan al da?

Egia esan emaitza aldetik ezin dugu gehiago eskatu. Txapelketa guzti hauek eta beste hainbat estropada irabazteko zortea izan dugu. Lehenengo hiru urteetan, 2002ra arte, ez genuen emaitza handirik lortu. Santanderren bazen beste tripulazio bat. Hauek oso onak ziren. Sidney-ko Joko Olinpikoetan egon ziren. Hauekin entrenatuz, gora eta gora hasi ginen. 2002. urtea izan zen guretzako onena. Onenen gurdira igo ginen eta zorionez oraindik ez gara gurditik jaitsi.

Aurten hirugarren aldiz, Europako txapelak izan zarete eta ekainean

Alemaniko aste Olinpikoan irabazi zenuen. Zuk esana da, aurtengo denboraldia zuen kirol ibilbideko onenetarikoa dela...

Hala da. Orain balio gehiago ematen diot honi. Azken urte t'ardi hau nahiko gogorra izan da guretzat. Parentesis txiki bat ireki genuen, 49er maila utzi eta 2005 eta 2006an munduari buelta emateko prestatu ginenean. Ondoren, berriro 49er mailara egokitzea kostatu egin zaigu. Uste genuen urte beteko epean berriz ere aurrean ibiltzeko moduan izango ginela, baina gehiago kostatu zaigu. Hala ere, otsailan estropadak irabazten hasi ginen eta azkenean Joko Olinpikoetan lan on bat egiteko moduan gaudela uste dugu. Sasoi puntu egokian gaude.

Bai Iker eta bai zure ahotik entzun dugu, estropadak jokatu diren Qingdao-ko portua ez dela mota honetako proba bat egiteko egokia...

2006an eta 2007an izan ginen bertan, eta han ikusi genuena ez da batere gustagarria. Mundu guztiak hitz egin du Qingdao-ko estropada guneaz: haize gutxi-ko lekua da, korronte handiekin eta baldintza bereziak ditu. Guk lehengo urtean erabaki genuen kexatzeaz utzi eta aurrera begiratu behar genuela. Azken batean, baldintza txarrak izan arren denok ego-

era bera izango dugu nabigatze-ko garaian.

Haize falta horregatik kiloak jaitseko dieta berezia egiten ari zarete. Bion artean 140 kilo pisatzeraino jaitsi nahi duzue. Zer moduz doa?

Hori zen gure asmoa, baina asko ari zaigu kostatzen. Kontua da, ohiko baldintzetan, 49-er motako ontzian ibiltzeko, pisu egokiena 150 kilo dela. Gu beti pisu horretan mantendu gara. Beste arerioek guk baino zama gutxiago daukate. Alde horretatik beti izan dugu abantaila. Baina Qingdao-ko portuan haizerik ez dabilenez, orain arte aurkari-rik kontrakoa izan duten faktore hori beren aldekoa izango da. Beste tripulazioek 140 kilo azpitik pisatzen dute. Horregatik kiloak jaiste komeni zaigu 140 kilo izatera iritsi arte.

Inoiz ez duzue horren kilo gutxi-ekin nabigatu. Ez al duzue beldurrik?

Batetik ahulago egongo gara, eta bestetik kilo gutxiagorekin ontzia prestatzeko era eta belen forma moldatu egin behar dira. Inoiz ez dugu hain kilo gutxiarekin nabigatu. Hori da daukagun zalantza bakarra.

Askok azpimarratzen duten ezaugarria da ondokoa: Iker eta zu bela-ontzian pertsona bat zaretela...



en bila

BA DELA DIO. SASOI PUNTU EGOKIAN DOAZ IKER ETA XABI PEKINERA.

Bai. Hasieratik asko landu dugu bion arteko koordinazioa. Iker nirekin ibili baino lehen beste lagun batekin ibili zen. Harekin ez zuen koordinazio hori lortzen eta orduan ikusi zuten ze garrantzitsua zen tripulazioaren konpenetrazioa. Lan asko egin genuen hori lortzeko. Horrela gauzak errazagoak izan dira. Alde horretatik, Iker eta ni oso indartsuak gara.

Itsasoan ez ezik, lehorrean ere elkarrekin igarotzen dituzue egunak, hilabeteak... Nolakoak da zuen elkarbizitza?

Duela bi urtera arte elkarrekin bizi izan gara. Biok hemengoak gara eta Santanderren egon behar izaten dugunez etxe bat alokatu eta modu horretan eman ditugu urte asko. Orain bakoitzak bere familia du eta horrek aldatu egin du guztia. Hala ere, asteak eta hilabeteak ematen ditugu elkarrekin. Ondo ematen gara eta eskerrak. Bestela infernua izango litzateke.

Egungo txapelkun olinpikoak zarete. Faboritotzat jotzen zaituztela sentitzen duzue?

Jendeak esaten dizu eta zuk ere ikusten duzu faborittoa zarelara. Jendea askok galdetzen du presio hori ona edo txarra den. Nire ustez, ona da. Horrek esan nahi du, bere garaian irabazi egin genuela. Eta bestetik esan nahi du, oso maila ona dugula, eta urrea janzteko posibilitateak ditugula.

Urrezko domina eskura ikusten duzue?

Gure helburua domina ekar-

tzea da. Urrezkoa bada hobeto, baina zilarrezkoa edo brontzezkoa ekarrita ere gustura geratuko gara. Kontutan izan behar da Joko Olinpikoak lau urtez behin direla. Munduko txapelketa oso garrantzitsua da, baina urtero jokutzen da. Olinpiadetara munduko onenak joaten dira. Dena ematen dute. Horregatik, domina eskuratzea gauza handia da.

49er mailako estropadan hartuko duzue parte. Zenbat egunetako estropada izango da?

Estropadak luzeak izaten dira. Nik uste dut 10-12 egun izango direla. Abuztuaren 10ean hasten gara eta eguraldiaren arabera, abuztuaren 20an, edo inguru horretan amaituko da. Egun bakoitzean bi edo hiru estropada egingo ditugu. Bakoitzak 40 minutu inguru iraungo ditu. Estropada bakoitzean puntu gehienak metatzen dituenak irabazten du.

Zuen bigarren joko olinpikoak izango dira Pekinekoak. Atenasko jokoetan izan zenuten ilusio bera al duzue orain ere?

Ilusioa baudugu, baina nire ustez ezberdina da. Oraingo honetan, domina ekartzeko ilusioa daukagu eta horretarako lau urtez egon gara prestatzen. Atenasera ere ilusio handiarekin joan ginen, baina orduan Joko Olinpikoetan parte hartze hutsak sortzen zigun ilusioa. Primeran atera zitzaigun, urrezko domina ekarri genuen etxera. Baina bestela izan balitz ere, gustura itzuliko ginen. Momentu honetan sasoi puntu egokian aurkitzen gara. Denboraldia oso ondo



Xabi Fernandez eta Iker Martinez pertsona bat dira bela-ontzian.

joan zaigu eta irabazteko aukerak ditugula uste dugu. Horrek sortzen digu ilusioa.

Joko Olinpikoak igaro ostean. Munduko itzulian parte hartuko duzue. Bederatzi hilabeteko proba da hau, zer moduz daramazue horrenbeste denbora etxetik kanpo igaro beharra?

Ondo eramaten dugu, baina egia esan gero eta gehiago kostatzen zaigu. Bederatzi hilabete denbora asko da etxetik kanpo egoteko. Baina munduari bira ematea oso erronka polita da. Lehen ere egin genuen Moviestar-ekin. Egia esan ez zen batere ondo atera. Oraingo bira berri honek askoz ere itxura hobea du. Ea aurrean ibiltzeko aukera dugun. Urriaren bostean abiatuko gara Alicantetik.

Munduko onenak izan zarete, Europako txapelkunak hiru aldiz, Olinpiar Jokoetan urrezko domina jantzi duzue. Futbolari batek hau guztia egingo balu izar bat izango litzateke...

Egia da. Baina gu baloratuak sentitzen gara, eta gero eta

gehiago gainera. Ni gogoratzen naiz, hasi ginenean, zerbait irabazi eta jendea ez zela enteratu ere egiten. Denborekin ordea hori aldatu egin da, batez ere Atenasko Joko Olinpikoak eta gero. Ni konturatzen naiz nola Tolosa eta Ibarra jende askok jarraitzen duen gure arrastoa eta berdin komunikabideek ere. Ni behintzat oso pozik nago, bai nire buruarekin eta baita jendearekin ere.

2012ko Joko Olinpikoetan egoteko asmorik ba al duzue?

Nik uste dut baietz. Munduari bira emango diogu, parentesis txiki bat egingo dugu, baina berriz ere hartuko dugu martxa. Londreseko jokoek askoz ere itxura hobea dute. Ingalaterrako Weymouth herrian jokatuko dira estropadak, leku ona da, eta han egoteko borrokatuko dugu. Egia da orain nekatuta gaudela. Guztia amaitzeko gogo izugarria dugu. Baina hori ere pasako da eta Londresen egoteko irrikaz egongo gara laister. ■

Uztailaren 18tik irailaren 5era arteko hitz

Ekitaldiren baten berri eman nahi baduzu, deitu 943 655 004 telefonora edo idatzi e-posta bat erredakzioa@galtzaundi.com helbidera

ERAKUSKETAK

ALEGIAKO JUBILATUEN TABERNA

»» Mari Karmen Ezeiza artistaren lanak. Hosto eta lore lehorrez egindako collage-ak jarriko ditu ikusgai abuztuaren 7ra arte. Zabalik asteartetik igandera.

GAU GIRO 08

TOLOSA

»» **Uztailak 18: Tolosako Musika Bandaren emanaldia** Lopez-Mendizabal pasealekuan.

»» **Uztailak 24: Oleden's Band folk-pop emanaldia** Lopez-Mendizabal pasealekuan.

»» **Abuztuak 1: Aitor Furundarena eta Garikoitz Mendizabal akordeoi eta txistu bikotea** Plaza Berrian.

»» **Abuztuak 4:** Zinea aire librean: **Mortadelo y Filemon. Mision: Salvar la tierra** filma Amarotz auzoan.

»» **Abuztuak 7:** Zinea aire librean: **The Host** filma Amarotz Auzoan.

»» **Abuztuak 8: Karma Quintet taldearen jazz bokala eta pop-a** Fronton Kafetegian.

»» **Abuztuak 29: Jamix** taldearen funk, jazz eta Reggae musika Plaza Berrian.

»» **Irailak 5: Manent** talde tolosarraren kontzertua Plaza Berrian.

OHARRA: Ekitaldi guztiak gaueko 22:30etan izango dira.

ALEGIAKO KARMEN JAIAK

UZTAILAK 18, OSTIRALA

»» 9:00 Txistulari eta trikitilarien DIANA.

»» 9:00 Jubilatuek antolatutako MENDI MARTXA.

»» 11:00 Jubilatuentzat HAMAIKETAKOA.

»» Ondoren BERTSOLARIAK plazan: Imanol Lazkano eta Amaia Agirre.

»» 17:30 Umeentzartazainen jokuak KULKI taldearen eskutik, eskolako patioan.

»» 18:00 Jubilatuen patata tortilla TXA-PELKETA.

»» 19:00 Sagardo kupela plazan.

»» 21:00 Afaría, TXEKORJATEA herriko plazan.

»» 23:30 Dantzaldia DRINDOTS taldearekin goizaldera arte.

UZTAILAK 19, LARUNBATA

»» 9:00 ARRANTZA LEHIAKETA Oriia ibaian 6 eta 14 urte bitarteko lehiakideentzat.

»» 9:00 Herriko txistulari eta trikitilarien DIANA.

»» 9:30 GIROARTE dultzaina taldeak alaitutako diana.

»» 12:00 Sagardo DASTAKETA sardina eta txorizo erreekin.

»» 12:00 ASIER UNSAIN eta IRMA KARRERArekin trikitixa plazan.

»» 18:00 HERRI KIROLAK Larraitz auzoko plazan.

Harrijasotzaileen III. TXINTXARRI SARIA

- Goenatxo II eta Eizmendi

- Izeta III eta Izeta IV

- Ostolaza eta Telleria

Harriak: 100 kiloko bola, 113 kiloko kubi-koa eta 125 kiloko kopa.

Ondoren, Gipuzkoako Ingude-altxatze Txapelketa (5 lehiakide).

»» 21:00 ZAHAGIARDOA. Ardoa gaztetxeak, postrea udalak eta ogia norberak.

»» 22:30 PELOTA PARTIDUAK

- Afizionatuak:

Renobales eta Gurrutxaga

Onsalo eta Galarraga

- Profesionalak:

Chafee eta Argote

Olaetxea eta Peñagarikano

»» 00:00-5:00 Makro Diskoteka

UZTAILAK 20, IGANDEA

»» 09:00 GIROARTE dultzaina taldeak alaitutako diana.

»» 09:30 KALEJIRA BEREZIA, lehen-go eta oraingo herriko txistulariekin.

»» 11:00 Intxurre Pelota Eskolako PARTIDUAK.

»» 12:30 IÑAKI DIEGUEZ QUARTET taldearen kontzertua plazan.

»» 19:30 "BIELLY ROSI" Biellorru-siako dantza taldearen emanaldia plazan.

»» 23:00-03:00 Dantzaldia TRAKETS taldearekin.

»» 00:00 TXINTXARRIAREN ERREKETA Elena Zubillagak eta Mirari Mendizabalek alaiturik.

ALTZOKO SAN INAZIO JAIAK

UZTAILAK 30, ASTEAZKENA

»» 18:00etan: Jaien hasiera, Tipulari ongi etorria herriko trikitilariekin (goxokiak bota).

»» Ondoren: DANTZAARTEA dantza taldearekin eta Ibarako ALURR taldeko gaztetxoaren emanaldia.

»» Ondoren DANTZA taldekoentzat afari-merienda Segoretxen



Bidaiarik erakargarrienak

Korreoa kalea, 5 - TOLOSA | Tel.: 943 674 566 | Faxa: 943 674 113

Errrotatxo Okindegia

Andia kalea, 3 Amaro, 9-A
Tel.: 943 655 492 Tel.: 943 671 038

zorduak

» 20:30ean: Zikiro jatea herriko frontoian

» 00:00etan: Dantza eresia eta KUPE-LA goizalderarte

UZTAILAK 31, OSTEguna

» 9:00tan: Goiz eresia herriko txistulariarekin

» 10:00etan: Meza nagusia

» 11:30ean: Erlojuaren aurka afizionatu mailako txirrindularien XVII. ALTZOKO IGOERA (CALCINOR saria)

» 18:30ean: Herri-Kirolak: aizkolaria, harri jasotzailea eta harri zulatzaileak

» Ondoren: Herriko trikitilariek alaituko dute herria

» Ondoren: Sagardo dastaketa

» Gauean goizalderarte: LAIOTZ

ABUZTUAK 1, OSTIRALA

» 11:00etan: Jubilatuen hamaiketakoa

» 15:30ean: Mus txapelketa azkarra herritarrentzat

» 18:30ean: Herritarren arteko pelota txapelketaren finalak

» Ondoren: Bertsolariak: Egaña, Lizaso, Zubeldia, Lujanbio, Barandiaran eta Iturriaga.

» 23:30ean: UNSAIN goizalderarte.

ABUZTUAK 2, LARUNBATA

» 11:30ean: Patata Tortila Lehiaketa

» 12:00etan: Txakoli probaketa (aragi egosia)

» Tarterean: Toka txapelketa herrikoia

» 15:30ean: Tiro Platoa

» 17:00etan: Pelota frontoi berrian

» Ondoren: Motozerraz egurra lantzea

» 21:00etan: Zahagi ardoa

» Gauean: ANSORREGI goizalderarte

MOTZEAN

Uda gaztea egitaraua ekuadorrera iritsi da



Tolosako Gazte Topagunean hainbat ekintza antolatu dituzte uztailean ere gazteek zer egin eta nola gozatu izan dezaten. Orain artean mota guztietako ekintzak egin dituzte: Basket 3x3 txapelketa, Rafting, Donostiako irlara eta Olaberriako karts-etara irteerak, funky eta txalaparta tailerrak...

Uztailaren amaierara arte beste hainbat ekintza dituzte aurretik lagunartean ondo pasatzeko.

- Uztailak 18: Lain taldearen kontzertua Topagunean 18:30ean.

- Uztailak 23: Billarra, ping-pong eta futbolen jokoak Topagunean

- Uztailak 24: Pintxo tailerra Topagunean 17:00etan.

- Uztailak 25: Perkusioa eta merienda Topagunean 18:30ean.

Dharra: Ekintza berezirik ez dagoenean, Topagunea zabalik egongo da asteartetik larunbatera 16:30etatik 20:30etara.

Guardiako farmaziak

UZTAILA

Larunbata, 19

Olarreaga J. (korreo 2) Tolosa

Igandea, 20

Tolosa, (Kale Nagusia, 7) Tolosa

Astelehena, 21

Ugarte, (Euskal Herria, 46) Ibarra

Astearte, 22

Iturrioz, (Euskal Herria, 3) Ibarra

Asteazkena, 23

Santamaria, (Naf. et. 2), Tolosa

Osteguna, 24

Echeveste Jesus M. (Gemika arb.3) Tolosa

Ostirala, 25

Iturrioz, (Euskal Herria, 3) Ibarra

Larunbata, 26

Tolosa, (Kale Nagusia, 7) Tolosa

Igandea, 27

Olarreaga M. (Martin Jose Iraola, 10) Tolosa

Astelehena, 28

Olarreaga J. (korreo 2) Tolosa

Astearte, 29

Ugarte, (Euskal Herria, 46) Ibarra

Asteazkena, 30

Morant R. (Zabalarreta, 1) Tolosa

Osteguna, 31

Bronte (Korreo 20) Tolosa

Telefono interesgarriak

Alegia-Amezketak-Abaltzisketa-Albiztur

Osasun zentroa 943 653 212

Altzo

Medikua 943 654 737

Anoeta-Alkiza-Hernalde

Medikua 943 652 339

Baliarrain

Medikua 943 889 003 (asteazk.)

Berastegi-Elduain

Medikua 943 683 361

Bidegoian

Medikua 943 681 134

Ibarra-Belauntza-Berrobi-Gaztelu-Leaburu

Osasun etxea 943 672 411

Ikaztegieta

Medikua 943 653 329

Irura

Osasun zentroa 943 690 720

Tolosa

Anbulatorioa, Iamialdiak 943 650 931

San Esteban, hitzordua 943 006 800

Gernikako Arbola, hitzor 943 006 900

Amarozko dispensarioa 943 672 637

Asunzion klinika 943 675 799

(Iamialdiak) 943 675 390

San Kosme San Damian

geriatrikoa 943 672 932

Udaltzaingoa 943 675 858

Ur eta Argia (Tolargi) 943 650 016

Ur zerbitzuak (laberiak) 639 352 156

lurreamendi egoitza 943 670 325

Iamialdiak, Suhiltzaileak 112

DYA 943 672 536

Gurutze Gorria 943 674 888

. 943 651 425

Ertzentza 943 673 022

Tolosa Gasa 943 675 320

Lizartza

Medikua 943 682 077

Orendain

Medikua 943 655 595

Orexa

Medikua 943 682 228

Vicente Errotuloak

Mugikorra: 609 15 65 08
Laskibar bailara 25 ■ Tel. 943 690294
■ Irura ■ Faxa. 943 694291
rotulosvicente@Jet.es

ULI

Meriendak, txurroak

Nafarroa, 1 • TOLOSA
Tel.: 943 651 830

Xirimiri

Txokolategia

Xabier Izaguirre

Gosariak eta meriendak

Tel.: 943 675 223
Errementari kalea, 40 • TOLOSA

Muxu-truk

Zure iragarkia muxu-truk atalean dohainik jartzeko aukera duzu. Deitu 943 655 004 telefonora

LANA

■ **Adineko pertsonak** edo gaixoak zainduko nituzke. Esperientziaduna eta profesionaltasuna. Karlos, **680 983 527**

ETXEBIZITZA

■ **Etxebizitza salgai** Alegian. 65 m². 186.000 euro. **629 52 51 50**.

■ **Bikote bat alokairuan dagoen** pisu edo logela baten bila dabil Tolosaldean. **667 049 752** (Gala).

■ **Etxebizitza salgai** Izaskun auzoan. 60 m². 2 logela, sala, sukaldea eta komunarekin. **645 718 536**

■ **Etxebizitza salgai** Zuberoa auzoan, Tolosa. 3 logela, sala, sukaldea eta komuna berritua, berogailua eta igogailurekin. **696 411 683**

■ **Garaje bat** alokatzen da Anoetako San Juan kalean. 653 703 391

SALGAI

■ Setter Ingles arrazako **txakur kumeak salgai** Abaltzisketan. **697.92.99.99**

IKASKETAK

■ **Ingelesko** klaseak ematen dira taldeka edo bakarka. Maila ezberdinak, irakasle tituloduna. **664 160 268**.

HOROSKOPOA

UDARAKO AURREIKUSPENA



ARIES

Martxoak 21 – Apirilak 21

Barre asko egingo duzu uda honetan. Hori zorrea! Ondo pasatzeaz gain, abdominalak landuko dituzu izerdi tantarik atera gabe!



TAURUS

Apirilak 22 – Maiatzak 21

Ezkontzak perretxikuak bezala hazi dira zure inguruan. Joan zaitetz hilabete osorako oporretara, merkeago aterako zaitzu.



GEMINI

Maiatzak 22 – Ekainak 21

Onenak emanda zaudela uste duzu, baina zure bizitzako parrandarik handienak botatzeko zaudete oraindik. Uda hau ahaztezina izango da zuretzat.



CANCER

Ekainak 22 – Uztailak 22

Izarrek zure horoskopoa egiten duten efektu berezi bat dela eta, zure ingurukoek inoiz baino ederrago ikusiko zaituzte. Arrakasta handia izango duzu.



LEO

Uztailak 23 – Abuztuak 22

Gauza ezberdinak egitea komeni zaizu: mendira joan, inguruko txoko ezberdinak ezagutu. Horrela bakarrik erlaxatuko zara. Kontuz eguzki erredurekin.



VIRGO

Abuztuak 23 – Irailak 22

Oporrak hartzerakoan defentsak erlaxatu eta gaixotu egin ohi gara. Zoritxarrez zure kasua izango da hau. Gaixaldia sahiesteko fruitu eta barazkiak jan



LIBRA

Irailak 23 – Urriak 22

Larruzal beltzarana luzitzea ondo dago baina horrek ere badu bere neurria. Ondo babestu azala. Aurreko urteetan bezala erretzeak kalte handia egin diezazuke.



SCORPIUS

Urriak 23 – Azaroak 22

Udara honetan iraganeko oroitzapen asko berrituko zaizkizu. Espero ez duzun bisita bat jasoko duzulako izango da hori. Kontuz edari hotz eta izozkiekin.



SAGITTARIUS

Azaroak 23 – Abenduak 21

Beti zuk aukeratzen duzu udarako plana. Aurten bere txanda da. Joan zaitetze berek ezagutu nahi dituen lekuetara, gustuko duen hori elkarrekin egin... Eskertu egingo duzu.



CAPRICORNUS

Abenduak 21 – Urtarrilak 20

Une txarrenetan ondoan izaten diren horiek dira benetazko lagunak. Lagun ona edo txarra zaren jakiteko froga izango duzu laister. Behar zaituen horren ondoan egoteko gai bazara gaudituko duzu soilik.



AQUARIUS

Urtarrilak 21 – Otsailak 20

Orain arte xoxik gabe ibili bazara, aste gutxi batzuen buruan diru sarrera garrantzitsu bat izango duzu. Horrenbeste desio dituzun opor horiek egiteko modua emango dizu honek.



PISCIS

Otsailak 21 – martxoak 20

Carpe Diem. Udara hau zure bizitzako udara izango da. Alor guztietan dizdira egindo duzu: lanean, lagunartean, etxean eta batez ere maitasunean.



PIXKA.BOT ES.MUCHO







Ikartu duan
pixkabotesmucho.com
webguneak.



Zenbat, zortzi mila?



CITROËN C3 8.900 EUROTIK*
ARRISKU OROTARIKO ASEGURUA OPARI*



CITROËN C4 11.600 EUROTIK*
ARRISKU OROTARIKO ASEGURUA OPARI*




CITROËN C4 PICASSO 5 plaza, 19.050 EUROTIK*
ARRISKU OROTARIKO ASEGURUA OPARI*

Kontsumo minimoa (l/100 km.) / Zaukipera CO₂ (grs./km.): C3: 4,3-7,2/113-172 CO₂: 4,5-9,1/120-193 C4 Picasso Sp: 5,7- 9,0/150-195 *Gonendutako sinuerrria C3 1.1i Furio, C4 1.4i 16v 18i C4sp, C4 Picasso Sp, 1.8i 16v 170v 18i Plus, 1922 cc - astirikidatutako sergio, garraioa eta eskaintza bazein. Eskaintza murrizten. Hiltabete bulegara bitartea baliaizgarria, autoentzatz eta stock-ean dauden autoentzatz, Penintsulan eta Balearretan bezero partikularrentzatz, operazioan parte hartzen duten ohiko tokietan. Irudietako argazkiak: C3 Exclusive, C4 VTR Plus Sp., C4 Picasso Exclusive Sp. 1) Arrisku orotariko aseguru opari frankizia (210 - 600 euro artekoa) bazein, lehenengo urte osoan, Direct Seguros etxearekin eta Am Gil y Carvajal S.A. aseguru konbentzioaren bitartez. Citroën Credit-ek eskaintza, C4 edo C4 Picasso Sp erosten duten 28 urtetik gorako bezeroentzatz eta C3-a eskuratzen duten eta 5.000 euroko gutxienezko ekonomiko minimoa duten adin gutxiesten errententzatz.

ETOR ZAITEZ IKUSTERA:

IROVI, S.A.

Kontzesionario Ofiziala Citroën
Industrial gunea z/g. Tel.: 943 65 18 42. Anoeta / Tolosa



NO TE IMAGINAS LO QUE CITROËN PUEDE HACER POR TI



Egin zaitez Galtzaundiko bazkide

Izen-abizenak:

Helbidea:

Herria:

Telefonoa(k):

Urteko kuota:

Lanean 38 euro Langabetua, ikaslea edo jubilatua 21 euro

Kontu korrante zenbakia _ _ _ _ / _ _ _ _ / _ _ _ _ / _ _ _ _

Nafarroa etorbidea, 6-behea • 20400 Tolosa • Tel.: 943 655 004 • Faxa: 943 654 983



ECOTEC Opel Astra 115cv. benzină

Controlașuna învinge cel ce creștea la sta.



Orice drum este o provocare de învingere

Astra ECOTEC 115cv în consum redus și cu performanțe ridicate
 și cu un bagaj de încărcare de 1.000 litri și 15 puncte de ancorare și un compartiment

STC în Cash
13.900€ - în plus

Opel Astra 11.700€ - în cash

10000

Prețurile sunt în euro și sunt estimate și pot să difere de cele reale datorită schimbărilor de curs și a altor factori. Pentru mai multe informații, vă rugăm să contactați dealerii Opel sau să vizitați site-ul nostru.

Giauto

BUCHUREȘTI - CLUJ - GALATI - IASI - MANGALIA - ARAD - BUCUREȘTI - BUCUREȘTI
 Tel: 004 075 1 22 222222 - Tel: 004 075 1 22 222222 - Tel: 004 075 1 22 222222

www.giauto.ro